



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 14a

3. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itxarote-zerrenden sistema garden bat eta mendekotasuna baloratzeko nahiz gizarte zerbitzu orokorren zorroan bermatzen diren prestazio bakoit-zerako erantzun bat emateko ustez beharko den denbora ezar ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (37. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tren-txartelak saltzeko leihatilen itxierak ukitutako udalekin batera lan egin dezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek ADIFI nahiz Renferi egindako eskariak bideratzeko. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (39. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikulua 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (40. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da indartu dezan ospitaleratu-ta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (41. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia (42. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

—2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeari buruzko arauak (44. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.1 artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko urtarrilaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127, 154 eta 156. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua bideratu dadila hori izapidetzeko Arauek ezarritako prozedurari jarraituz. Arau horiek Legebiltzarreko Mahaiak 2020ko urtarrilaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez onetsiak dira (10-20/LEY-00001).

**2.** Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik epe bat irekiko da, **2020ko urtarrilaren 22ko 12:00etan bukatuko dena**, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak nork bere izenean osoko zuzenketak aurkeztu ahal izateko, eta beste epe bat, **2020ko urtarrilaren 28ko 12:00etan bukatuko dena**, artikuluei eta aurrekontuko partidei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 128. eta 155. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### **I. TITULUA**

#### **Kredituak eta horien aldaketak**

### **I. KAPITULUA**

#### **Hasierako kredituak eta haien finantzaketa**

**1. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren esparrua.

1. Onetsi egiten dira 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Atal hauek dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren erakundearen aurrekontua.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua.

c) Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua.

d) Foru Komunitateko fundazio publikoen aurrekontuak.

e) Foru Komunitateko sozietate publikoen aurrekontuak.

2. Aurrekontu horiek erantsia dute, halaber, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren aplikazio esparruan dauden beste subjektu eta entitate batzuen aurrekontuei buruzko informazioa, lege organiko horren 6.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

**2. artikulua.** Kredituen eta eskubide ekonomikoen zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetze aldera, 4.557.058.498 euroko zenbateko bateratua duten kredituak onesten dira.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako sarreren egoera-orrietan jasorik agertzen dira

aurrekontu ekitaldi honetan likidatu asmo diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak; hain zuzen ere, 4.557.058.498 euro egiten dute, bateratuta.

3. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat, gastu ez-finantzarioaren muga, behin Toki Ogasunen Funtza eta Estatuarentzako ekarpena deskontatu ondoren, 3.417.872.078 eurokoa da, sarrera ez-finantzarioak, kontabilitate nazionalako doikuntzak eta baimendutako defizita batuta.

## II. KAPITULUA

### Aurrekontu-kredituen aldaketa

#### 3. artikulua. Aurrekontu-kredituen aldaketa.

Aurrekontu-kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen aginduen arabera izanen dira, foru lege honek agindu horiek aldatzen ez dituen heinean.

Aurrekoa gorabehera, ez dira aurrekontu-aldaketatzat hartuko partiden arteko funts-mugimenduak, baldin eta, partidetan agertzen diren kredituek helburu bera izanik, partida ezberdinetan kokatuta badaude Europar Batasunak gastuen erabilera hobeto kontrolatzearen halaxe eskatzeagatik, gastuak hein batean hark kofinantzatutak izatearen ondorioz.

Partida zer departamenturi dagokion, departamentu horren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Partida bi departamenturi badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

#### 4. artikulua. Europar Batasuneko programen aurrekontu-aldaketak.

1. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak proposaturik, eta Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak txostena egin ondoren, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena ematen ahal du, Europar Batasunak kofinantzatutako programa eta proiektuak ekitaldian zehar ahalik eta hobekien betetzeko, Europako Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren jarraipen batzordeek edo Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketa horiek gastuen egoera-orrietan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

2. Europar Batasunak kofinantzatzen dituen proiektuak biltzen dituzten partidetan eragin zuzena duen kreditu-aldaketa oro egiteko, aldeztatik Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da. Salbuetsirik daude Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak (LGENF) kofinantzatutako kredituei eragiten dieten aldaketak.

#### 5. artikulua. Kreditu-gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 47. artikuluko 1. apartatuko a)tik g)ra bitarteko letretan aipatutako kredituez gain, gehikuntza izaten ahal dute, 2020ko ekitaldiari dagokionez, helburu hauek dituzten partidek edo ekitaldian zehar horretarako sortu beharrekoek: terrorismoaren biktimak edo indarreko araudian zehaztutako motibazio politikoko ekintzen biktimak aintzatestearen eta horiei kalte-ordainak ematearen ondorioz onets litezkeen dirulaguntza eta maileguak emateko partida guztiek, eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari dagozkion partida guztiek.

Aurrekoez gainera, ondorengoek ere gehikuntza izaten ahal dute:

1. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko partida hauek:

a) 020002-04100-1001-921400 partida, "Nafarroako Gobernuak lehendakari ohi, kontseilari ohi eta beste goi-kargudun batzuentzako prestazioak" izenekoa.

b) 020002-04100-1620-921400 partida, "Langileen arloko erabakiak aplikatzeko funtza" izenekoa.

c) 020002-04100-1800-921400 partida, "Zerbitzuen onarpenak, osagarri berriak, familia-laguntzak, gradua, antzinasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

d) 020002-04100-1800-921402 partida, "Ordainsarien igoera" izenekoa.

e) 020002-04100-1810-921400 partida, "Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoa.

f) 020002-04100-1820-921403 partida, "Lan istripuengatik jaso beharreko kalte-ordainak" izenekoa.

g) 020002-04300-1614-211100 partida, "Erretiro aurreratuengatik eman beharreko kalte-ordainak" izenekoa.

h) 051000-02100-1800-132100 partida, "Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen aplikazioa" izenekoa.

i) 051000-02100-2274-132103 partida, "Genero indarkeriatik babesteko segurtasun zerbitzuak" izenekoa.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko partida hauek:

a) 100000-10000-4709-441100 partida, "AUDENASA. Merkataritza-politika" izenekoa.

b) 110003 11530 3101 951100 partida, "Interesak eta kreditu komisioak" izenekoa.

c) 110003 11530 3400 931500 partida, "Banaketa kontuen eta bestelako interesak" izenekoa.

d) 111002-11300-6002-923100 partida, "Lurrak eta natur ondasunak" izenekoa.

e) 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoa.

f) 111002-11300-6020-923104 partida, "Higieinei buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoa.

g) 111002-11300-6050-923100 partida, "Higieinei buruzko Plana. Eraikinetako eta obretako altxariak eta hornidura" izenekoa.

h) 111002-11300-8500-923100 partida, "Sektore publikoko akzioak erostea" izenekoa.

i) 150000-17000-6094-923400 partida, "Iruzur fiskalaren, ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurkako plana" izenekoa.

j) 151000-17330-2273-923400 partida, "Enkargua Tracasa Instrumental sozietateari. Tributuen arloko informazio sistemetan datu fiskalak jaso eta integratzeko zerbitzuak" izenekoa.

k) 155003-17830-2272-932103 partida, "Zordun fiskalen ondasunen gaineko kargak eskuraztea" izenekoa.

l) 155003-17830-3501-932100 partida, "Berandutze-interesak sarrera bidegabean eta zergen itzulketetan" izenekoa.

m) 160000-17100-2269-941100 partida, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

3. Lurralde Kohesiorako Departamentuko partida hauek:

a) 210001-21100-4609-942300 partida, "Toki entitateentzako konpentsazioa toki tributuetako hobariengatik" izenekoa.

b) 210001-21100-7609-912200 partida, "Los Arcosko eraikinaren exekuzio subsidiarioa" izenekoa.

c) 220000-22000-6010-453300 partida, "Prezio-berrikuspena" izenekoa.

d) 220003-22200-2090-453200 partida, "A-12 Iruña-Logroño autobieren kanona" izenekoa.

e) 220003-22200-2090-453202 partida, "A-21 Pirinioetako autobieren kanona" izenekoa.

f) 220003-22210-6010-453305 partida, "Errepide sarearen zainketa eta kontrol zentroa" izenekoa.

g) 220003-22210-6010-453306 partida, "Zoruak sendotzea" izenekoa.

h) 220004-22100-4700-452100 partida, "Nafarroako Ubidearen bidezko ureztaketan kanona. Handitzearen 1. fasea" izenekoa.

4. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko partida hauek:

a) 320000-32100-4809-261400 partida, "Etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak" izenekoa.

b) 320000-32100-7800-261400 partida, "Etxebizitzaren arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak" izenekoa.

5. Hezkuntza Departamentuko partida hauek:

a) 400000-41000-1220-322000 partida, "Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak" izenekoa.

b) 400000-41000-1800-322000 partida, "Zerbitzuen aitortza, osagarri berriak, familia-laguntza, gradua, antzinatasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

c) 400000-41000-1810-322000 partida, "Langileen lansariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoa.

d) 400000-41000-1820-322000 partida, "Epaia betearaztea eta beste kalte-ordain batzuk" izenekoa.

e) 410002-41610-4609-322000 partida, "Eskola-kontzentrazioen eta hezkuntzarako erabiltzen diren udal eraikin funtzionamendurako transferentzia" izenekoa.

f) 410002-41610-6081-322000 partida, "Ikasliburuen doakotasunerako plana" izenekoa.

g) 410002-41610-7811-322000 partida, "Ikasliburuen doakotasunerako programa" izenekoa.

h) 410004-41620-2210-324100 partida, "Jantokiak" izenekoa.

i) 410004-41620-2230-324100 partida, "Eskola garraioa" izenekoa.

j) 410004-41620-2230-324102 partida, "Hezkuntza bereziko eskola garraioa" izenekoa.

k) 410004-41620-4800-324100 partida, "Eskola garraiorako banakako laguntzak" izenekoa.

l) 410004-41620-4800-324102 partida, "Jantokietarako banakako laguntzak" izenekoa.

m) 410004-41620-4800-324103 partida, "Ikastetxera iristeko zailtasunak dituzten ikasleen garraiorako laguntzak" izenekoa.

n) 420002-42120-4609-322100 partida, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatze" izenekoa.

#### 6. Osasun Departamentuko partida hauek:

a) 54. programa-multzokoak, kode ekonomiko hauei dagozkienak: 2210, 2213, 2214, 2215, 2216, 2286, 2287 eta 2500; bai eta 52. programa-multzoaren barruan 2215 kode ekonomikoari dagozkionak ere.

b) 520001-51200-2269-313902 "Droga-mendekotasunaren aurkako III. Foru Plana (DFP)" izenekoa.

c) 540000-52000-1800-311100 partida, "Zerbitzuen onarpenak, osagarri berriak, familia-laguntzak, gradua, antzintasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

d) 540000-52000-1810-311100 partida, "Langileen lansariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoa.

e) 540002-52824-4809-311104 partida, "Protesiak, ortesiak eta desgaitasuna dutenentzako ibilgailuak" izenekoa.

f) 540005-52831-4809-313100 partida, "Farmaziako prestazioak" izenekoa.

g) 540005-52831-4809-313102 partida, "Xurgatzaileak eta beste produktu sanitario batzuk" izenekoa.

h) 540005-52831-4809-313103 partida, "Farmazia-prestazioak - koordinketa arautzea" izenekoa.

i) 543004-52214-2276-312700 partida, "Plasma zatitzeko lanak, farmakoak ekoizteko" izenekoa.

#### 7. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko partida hauek:

a) 710000-71210-4700-412100 partida, "Lan-daketak erazteagatik kalte-ordainak" izenekoa.

b) 710000-71210-4700-412107 partida, "Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak" izenekoa.

c) 710000-71210-7700-412100 partida, "Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak" izenekoa.

d) 710001-71230-4700-414210 partida, "Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez" izenekoa.

e) 710004-71320-2279-412205 partida, "Larrialdiko txertaketa ofizialak" izenekoa.

f) 710004-71320-7700-412200 partida, "Kalte-ordaina, abereak epizootien ondorioz hil behar izateagatik, eta azienda mugitzeko debekuaren ondoriozko irabazi lortugabeagatik" izenekoa.

g) 710006 71510 4400 414105 partida, "Transferentzia arrunta, INTIA" izenekoa.

h) 710006 71510 4700 414100 partida, "Nafarroako Ubidearen bidezko ureztaketaren kanona" izenekoa.

i) 710006715107609414400 partida, "Titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak konpontzeko laguntzak, aparteko uholdeengatik" izenekoa.

j) 710006-71510-7819-414100 partida, "Ureztatzaileen Elkartearen nekazaritza azpiegiturak konpontzeko laguntzak, aparteko uholdeengatik" izenekoa.

#### 8. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko partida hauek:

a) 810001 81100 4819 422203 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak" izenekoa.

b) 810001 81100 7819 422200 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak. Proiektuak" izenekoa.

c) 830001 83130 4709 432105 partida, "ETEentzako dirulaguntzak. Erdialdeko uholdeak" izenekoa.

d) 830001 83130 7709 432102 partida, "ETEentzako dirulaguntzak. Erdialdeko uholdeak" izenekoa.

#### 9. Eskubide Sozialetako Departamentuko partida hauek:

a) 2600 kode ekonomikokoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru

Legean aurreikusitako gizarte zerbitzu orokorren zorroa onetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan ezarritako prestazio bermatuak finantzatzeko direnak, 900003, 920005 eta 920008 proiektuetan daudenak.

b) 900002-91100-4809-212100 partida, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoak.

c) 900002-91100-4809-231500 partida, "Errenta bermatua" izenekoak.

d) 900002-91100-4809-231502 partida, "Gizarteratzeko laguntza bereziak" izenekoak.

e) 900003-91600-4609-231500 partida, "Etxegabeentzako harrera zerbitzua" izenekoak.

f) 900003-91600-4609-231502 partida, "Oinarriko Gizarte Zerbitzuak" izenekoak.

g) 900003-91600-4609-231503 partida, "Larrialdi sozialeko laguntzak" izenekoak.

h) 900003-91600-4609-231602 partida, "Enplegu sozial babestua. PO EGIF 2014-2020" izenekoak.

i) 900004-91100-4819-143103 partida, "Nazioarteko larrialdietarako laguntzak" izenekoak.

j) 920004-93200-4809-231B00 partida, "Zerbitzuari lotutako laguntzak" izenekoak.

k) 920004-93200-4809-231B02 partida, "Laguntzak, zerbitzu pertsonalak emateko" izenekoak.

l) 920004-93200-4809-231B06 partida, "Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko laguntzaileak kontratatzea" izenekoak.

m) 920008-93300-4809-231700 partida, "Zailtasun edo gatazka egoeran dauden adingabeen autonomiarako baliabideak" izenekoak.

n) 920008-93300-4809-231702 partida, "Familiarentzako prestazio ekonomikoak" izenekoak.

ñ) 920008-93300-4809-231704 partida, "Kanpoko ikastetxeetako hurren kuota" izenekoak.

o) 950001-96100-4709-241109 partida, "Enplegu zentro berezietarako laguntzak. EGIF" izenekoak.

p) 950001-96100-4809-241107 partida, "Autoenplegua sustatzeko laguntzak. EGIF" izenekoak.

q) 950001-96100-4819-241104 partida, "Zailtasun gehiago dituzten kolektiboan gizarteratze eta laneratze programetarako laguntzak. Konferentzia sektoriala" izenekoak.

10. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko partida hau:

a) F20001-F2000-4819-112100 partida, "Profesionalen elkargoentzako transferentziak" izenekoak.

11. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko partida hauek:

a) G10001-G1110-6001-322300 partida, "Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako desjabetzeak" izenekoak.

b) G10001-G1110-6020-322300 partida, "NUPeko Medikuntzako Eraikina" izenekoak.

## II. TITULUA Langileria gastuak

### I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

**6. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publiko-etako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak.

1. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak gehikuntza izanen dute; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2020rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza orokorra. Horrek ez du ezertan galaraziko beharrezkoak diren ordainsari-doikuntzak egitea, beharrezkoa bada, halatan ziurtatzeko ezen lanpostu bakoitzari esleitutakoek behar bezalako lotura dutela lanpostu horren edukiarekin, zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna, arriskugarritasuna edo nekagarritasuna dela eta.

2. Maila bakoitzaren hasierako soldatak urteko zenbateko hau izanen du 2020an:

Maila	Urtebeteko zenbatekoa
A	26.897,36 euro
B	22.627,78 euro
C	18.770,64 euro
D	16.347,80 euro
E	14.379,68 euro

**7. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publiko-etako lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen

dira, foru lege honetan funtzionarioentzat finkatutako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko- en zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak, berriz, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru lege honetan funtzionarioentzat ezarritako irizpideei jarraituz.

**8. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako izendapen libreko zuzendaritza-karguen ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzuetako zuzendariak eta haren erakunde autonomoetakoak (aurrekoekin parekatutakoak) 53.726,54 euroko ordainsariak izanen dituzte 2020an, hamalau hilekotan banatuta, araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu, antzinasun eta familia-laguntzako ordainsari pertsonalak jasotzeaz gainera, bai eta, jatorrizko izendapenagatik edo beren zerbitzu-ematearen baldintza bereziengatik, plantilla organikoan espezifikoki esleituta dituzten ordainsari osagarriak ere.

Zerbitzuetako zuzendariak beren lana erabateko prestasunez eta dedikazio oso eta erabatekoaz eginen dute.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko izendapen libreko zuzendaritza-karguen ordainsariak ondotik zehazten diren zenbatekoak izanen dituzte 2020an, hamalau hilekotan banatuta, araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu, antzinasun eta familia laguntzaren ordainsari pertsonalak jasotzeaz gainera:

a) Zerbitzu ez-asistentzialetako burutzak: 53.726,54 euro.

b) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko Zuzendaritza: 59.131,24 euro.

Baldin eta gaur egun Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendaritza-kargu horien titularren batek artikulua honetan jasotzen den zenbatekoa baino gehiago jasotzen badu, aldeagatik konpentsazio pertsonal bat ordainduko zaio, kargu horretan diharduen bitartean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako izendapen libreko zuzendaritza-karguetako langileen ordainsariak 6. artikuluan xedatzen denaren aplikaziotik eratorritako iguera bera izanen dute.

**9. artikulua.** Nafarroako Gobernuako kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako goi-kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak.

1. Nafarroako Gobernuako kideek, zuzendari nagusiek, erakunde, sozietate eta fundazio publikoetako zuzendaritzako kideek eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako gainerako behin-behineko langileek hurrengo apartatuetan zehazten diren ordainsariak jasoko dituzte 2020an.

2. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuako kideek, 2020. urtean, ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, funtzionarioak eta administrazio-kontratudunak izanez gero araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu eta antzinasun ordainsariez gainera:

– Nafarroako Gobernuako lehendakaria: 73.786,30 euro.

– Lehendakariordea edo kontseilaria: 68.667,48 euro.

3. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuako departamentuetako titularren kabineteetan goi-kargudunaren izaera duten langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2020. urtean, hamalau hilekotan banatuta, funtzionarioak eta administrazio-kontratudunak izanez gero araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu eta antzinasun ordainsariez gainera:

– Lehendakariaren aholkularia: 58.836,54 euro.

– Kontseilarien kabineteburua: 54.762,54 euro.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zuzendari nagusiek 58.836,54 euroko ordainsariak izanen dituzte 2020. urtean, hamalau hilekotan banatuta, funtzionarioak eta administrazio-kontratudunak izanez gero araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu eta antzinasun ordainsariez gainera.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 52.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde publikoetako zuzendaritzako kideek ondotik zehazten diren ordainsariak izanen dituzte 2020. urtean, hamalau hilekotan banatuta, fun-

tzionarioak eta administrazio-kontratudunak izanez gero araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu eta antzintasun ordainsariez gainera:

a) Erakunde autonomo bateko zuzendari kudeatzailea, ondoko b) eta c) letretan xedatutakoa salbu: 58.836,54 euro.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak: 90.905,36 euro.

c) Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea: 56.281,54 euro.

d) Erakunde autonomo bateko zuzendariordea: 53.726,54 euro.

e) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kideak:

– Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailea, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea, Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria eta Eriari Osasun Laguntza emateko zuzendaria: 69.464,92 euro.

– Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzailea, Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzailea eta Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari asistentziala: 60.716,18 euro.

– Osasun Mentaleko kudeatzailea, Nafarroako Ospitaleguneko zuzendariorde asistentzialak, Tuterako eta Lizarrako osasun barrutietako zuzendari asistentzialak eta Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zuzendariordeak: 59.131,24 euro.

– Zerbitzu Zentraletako zuzendariordeak: 58.063,04 euro.

– Nafarroako Ospitaleguneko Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbi-

tzu Orokorren zuzendaria eta Osasun Zaintzen zuzendaria: 55.435,38 euro.

– Nafarroako Laguntza Soziosanitarioko Planaren koordinatzailea eta Nafarroako Ospitaleguneko Zaintza Sanitarioen zuzendariordeak: 50.229,20 euro.

6. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernua osatzen duten kideen kabineteetako gainerako behin-behineko langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2020. urtean, hamalau hilekotan banatuta, funtzionarioak eta administrazio-kontratudunak izanez gero araudi indardunaren arabera legozkiekeen gradu eta antzintasun ordainsariez gainera:

– Lehendakariaren idazkaria: 36.327,20 euro.

– Kontseilariaren idazkaria: 33.112,52 euro.

– Kabineteko laguntzailea: 29.002,26 euro.

7. Aurreko apartatuetan araututako behin-behineko langileek, funtzionario edo administrazio-kontratudun ez direnek, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioei dagokien antzintasun saria jasoko dute, eta horretarako kontuan hartuko da behin-behineko lanpostuetan lanean emanda denbora.

8. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartuta dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko sozietate publikoetako zuzendaritza-kideek, goi-kargudunaren izaera dutenek, ordainsari hauek izanen dituzte 2020an:

Zuzendari kudeatzaileentzat, urteko oinarrizko soldata gordina, hamalau hilekotan banatuta, 58.276,07 eurokoa izanen da. Urteko ordainsari hori doitu egingen da kudeatu beharreko enpresa publikoaren konplexutasunaren arabera, taula honi jarraituz:

Sozietate mota	Konplexutasunaren araberako osagarria	Urteko oinarrizko soldata gordina, eurotan
D	%0	58.276,07
C	%10	64.103,66
B	%30	75.758,88
A	%55	90.327,89



Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez sailkatuko dira sozietateak motaren arabera.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio publikoetako zuzendariek urteko ordainsari hauek izanen dituzte 2020an, hamalau hilekotan banatuta:

– Miguel Servet Fundazioa: 58.063,04 euro.

– Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioa: 50.229,20 euro.

– Baluarte Fundazioa: 63.728,70 euro.

– Gizain Fundazioa: 58.836,54 euro.

10. Nafarroako Gobernuko kide den inork, ez eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako goikargudunek ere, ezin izanen dute pertsonalki dietarik jaso ezein entitate publiko edo pribatutatik, administrazio kontseiluen nahiz kide anitzeko inolako organoren bileretara joatearen truke. Dietak jasotzen badituzte betetzen duten ordezkartzaren kariatara, horiek ordaintzen dituen sozietateak edo erakundeak dirua zuzenean sartuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kasuan kasuko aurrekontu- edo sozietate-kontuan.

11. Nafarroako Gobernuko kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako goikargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak 6. artikuluan xedatutakoaren aplikazioak eragindako igoera bera izanen dute, kasua bada.

## II. KAPITULUA

### Nafarroako administrazio publikoen monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboak

**10. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publikoen monte-pioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoen monte-pioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea dutenek, pentsio publikoek urte horretan oro har duten igoera bera izanen dute.

2. Pentsio publikoen arloko araudi indarduna aplikatuz, eguneraketa ez zaie aplikatuko jadanik aitortuta dauden edo etorkizunean aitortuko diren pentsioei, baldin eta, berek bakarrik nahiz haiei baturik, kasua bada, onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen zenbatekoa, gainditu egiten badute pentsio publikoetarako ezartzen den urteko gehieneko zenbatekoa.

**11. artikulua.** Arauak, Nafarroako Administrazio Publikoen monte-pioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren arabide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari jarraitzen duten funtzionarioen eskubide pasiboaren arabideari aplikatzekoak zaizkionak.

1. Funtzionarioen eskubide pasiboaren arabidea, artikuluko honetan aipatzen dena, martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak indarra hartu baino lehen indarra zuten xedapenek ezarriko dute. Soldata erregulatuak zehazteko, aintzakotzat hartuko dira foru lege horren eta hura betetzeko emandako behin-behineko ordainsari-erregulamentuaren aurreko sistemaren arabera funtzionarioek jasotako ordainsari handiagoak, gero-gero ekitaldietako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan adierazitako portzentajeen arabera igoerarekin. Salbuespena izanen da artikuluko honek lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik eskuratutako pentsioei buruz xedatutakoa.

2. Aurreko apartatuan aipaturiko xedapenen ildotik, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki emandako zerbitzu-urteak bakarrik hartuko dira kontuan. Urte horien barrenean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki egindako urteak, betiere behar den administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an eta 2001eko otsailaren 5ean hartutako Erabakiei eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako toki entitateen monte-pioetako bati atxikitako funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean daudela hiltzen badira edo erretiroa hartzen badute, pentsioaren zio den egintzarainoko atzeraeraginez zenbatuko dira aipatutako funtzionarioek Gizarte Segurantzaren arabide ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek ez badira gainjartzen aipatu monte-pioei kotizatutako beste batzuekin. Horren helburu bakarra izanen da zehaztea zein diren eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta kasuko pentsioa kalkulatzeko aplikatu behar den portzentajea edo kuota, kotizazio- edo zerbitzu-urteengatikoa.

Aurreko paragrafoan aipatu funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren arabide ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, kasua bada beste batzuekin batuta, aipaturiko arabideetan pentsiorako esku-

biderik sortu badute. Salbuespen izanen dira SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzen duen kotizazioa duten aldiak, zenbatu eginen baitira horiek.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo Nafarroako toki entitateek dituzten monte-pioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun-pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren aplikazio-esparruaren barnean dauden funtzionario publikoek 2020. urtean sortutako erretiroak eta pensioak finkatzeko, honako hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten ordainsari-kontzeptuen zenbatekoak 2020. urteari dagozkionak izanen dira; hau da, 1983. urtekoei geroko aurrekontuei buruzko foru legeek finkatutako urteko igoerak aplikatzearen emaitza direnak.

Salbuespen gisa, lan istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako ezintasunagatik erretiro-pentsioen kasuan, bai eta lan istripua edo gaixotasun profesionala dela-eta hiltzearen ondoriozko alargun- edo umezurtz-pentsioenean ere, hartzeko erregulatzailerak osatuko dute erretiroa edo heriotza gertatu aurreko urtean kasuko funtzionarioak bere lanpostuagatik jasotako ordainsariak.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako ordainsari-sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoan emandako ahalmenari jarraikiz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa honakoa izanen da: funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan izandako gehikuntzak aplikatzearen emaitza.

4. Funtzionarioek pensio araubidearen finantzaketan parte hartuko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko araudia aplikatuz atera zuten zenbatekoarekin, zenbateko horri ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezarritako pensio-igoerako portzentajeak gehiturik.

5. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoetako monte-pioen gutxieneko erretiro-pentsioa, bai martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioena, bai

aipatu foru legean aurreikusitako langileena, 2019. urterako ezarritakoa izanen da, zeina 15.103,06 eurokoa baita, baina 2020an eguneratua pensio publikoek urte horretan oro har izanen duten igoera aplikatuz.

70 urte betetzen dituztenetik aurrera, honakoei ere aitortuko zaie arestiko paragrafoan ezarritako gutxieneko pensioaren baliokidea den zenbatekoa jasotzeko eskubidea: beren borondatez erretiratu eta, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurretik zegoen eskubide pasiboaren sisteman jarraituta, kasuko administrazio publikoan 30 urte baino gutxiagoko zerbitzualdi aitortua frogatzeagatik eguneratze-eskubiderik gabeko pensioa sortu duten pertsonen.

6. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, gutxieneko alargun-pentsioaren zenbatekoa izanen da, urtean, ekitaldi horretarako ezarritako den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako zenbateko gordina.

7. Artikulu honen 6. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide pasiboaren sistema aplikatuz emandako umezurtz-pentsioei, Nafarroako Administrazio Publikoen monte-pioetako edozeinen kargura, zein bere erregelamenduan xedatutakoaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako testua oinarri harturik.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik baztertu egiten dira, beraz, aipatu 5/1991 Foru Legean ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzekoa zen araudiaren arabera emandako umezurtz-pensio guztiak, onuradunaren ezintasun egoerarengatik onartu zirenak izan ezik.

8. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pensioei buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluko 3. apartatuan eta udal funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Erregelamenduaren 10. artikuluko 3. apartatuan aipatzen diren umezurtz-pensioak, bai eta udal monte-pio partikularretan ezaugarri berak dituzten umezurtz-pensioak ere, aitortu eginen dira baldin eta pensio horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza guztiak bete egiten badira pensioa sorrarazten duen pertsonaren heriotzaren egunean edo, kasua bada, alargun-pentsioaren jasotzaile den ezkontidearen edo bikotekide egonkorren heriotzaren egunean.

9. Nafarroako Administrazio Publikoetako monte-pioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako sarrerekin bai erretiro-pentsioarekin.

10. Ezintasun iraunkorraren deklarazioak, bai eta haien graduenak ere, berrikusten ahalko dira, baldin eta onuradunaren adina 65 urte baino gutxiagokoa bada, dela egoera larriagotzeagatik dela hobetzeagatik, edo diagnostikoaren akatsaren ondorioz, betiere arau hauei jarraikiz:

a) Ezintasun gradua berrikusteko espedientea ofizioz edo interesdunak eskatuta irekitzen ahalko da, eta Nafarroako Ezintasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoak horri buruzko proposamen loteslea egingen du.

b) Funtzionarioari deklaraturako ezintasun iraunkorraren gradua aldatu eta handiagoa emanez gero, egoera larriagotu delako edo diagnostikoaren akats baten ondorioz, berrikusteko espedientea ebatzi eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera izanen du eragina pentsio berriak.

Kalifikazio berria diagnostikoaren akats baten ondorioa denean, eskubidea izanen du espedientea ebatzi arte jasotakoaren eta ezintasun gradu altuagoa aitortuta jaso beharko zukeenaren arteko aldeak egiten duen zenbatekoa jasotzeko, lau urtera arteko mugarekin.

c) Aurreko apartatueta aipatzen den berrikuspenak Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 17ko eta 1972ko azaroaren 24ko erabakietan ezarritako eraginak izanen ditu. Erabaki horiek indarra izaten jarraituko dute foru lege honetan ezarritakoaren aurka ez doan guztian.

### III. KAPITULUA Bestelako xedapenak

#### 12. artikulua. Lanpostu-eraldaketa.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantillaren edo eman beharreko zerbitzuen berregituraketagatik edukirik gabe gelditutako lanpostuak, hutsik ez daudenak, bestelako lanpostu batzuetan eraldatzeko. Eginkizunen esleipen berria eta horren ondoriozko lekualdatzeak, maila beraren barnean, salbuespenez Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak berak zuzenean egingen ditu, sindikatuen ordezkarietara entzun ondoren eta ukitutako langileen adostasunarekin.

2. Lanpostu horiek maila bereko bestelako lanpostuetan eraldatzerik ez badago, salbuespenez baimena ematen ahalko da beste maila bateko lanpostuei dagozkien eginkizunak esleitzeko, baldin eta ukitutako langileek horiek betetzeko lanbide-kualifikazioa eta gainerako baldintzak betetzen badituzte. Esleipen berri hori aldi baterako izanen

da kasu guztietan, gehienez ere langilearen mailan atxiki edo eraldatzea posible izan arte, eta beti bermatuko da langileak jaso egingen dituela aurretik betetzen zuen lanpostuari zegozkion oinarriko ordainsariak eta ordainsari osagarriak.

**13. artikulua.** Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak ekarpena egingen du Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen pentsioak finantzatzeko, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorrekoak direnen kasuan; ekarpen hori banatuko da Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketagatik 2019ko ekitaldian sortutako kostuen ordaintetari dagokionez udal bakoitzari esleitu zaion kuotaren arabera.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak ekarpen bana egingen die Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalei, beraien montepioen kudeaketak 2019ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

3. Aurreko apartatueta ezarritako ekarpenen zenbatekoa izanen da Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatzearen emaitza.

### III. TITULUA Finantza eragiketak

#### I. KAPITULUA Abalak eta maileguak ematea

#### 14. artikulua. Abalak eta maileguak ematea.

1. Nafarroako Gobernuak abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko ditu, gehienez ere 20.000.000 euro egingen dutenak.

Aurreko paragrafoko mugaren barruan, Garaipen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuari baimena ematen zaio abalak eta birabalak emateko, enpresei finantzaketa eskuratzea errazteko; horretarako, behar diren hitzarmenak izenpetzen ahalko ditu elkar bermatzeko sozietateekin eta finantza-entitateekin.

Ondare Zerbitzuak txostena emanen du horien guztien gehieneko zenbatekoei buruz.

2. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 30.000.000 euro egingen dute.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen abalen edo antzeko beste bermeen gehieneko arrisku bizia 46.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 97.000.000 eurokoa izanen da.

4. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek maileguak ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 15.000.000 euro eginen dute.

5. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 64.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, gehieneko arrisku bizia 134.000.000 eurokoa izanen da.

6. Artikulu honetan ezarritako mugen kontaketatik kanpo daude Nafarroako Gobernuaren eta bere sozietate publikoen artean nahiz sozietate publiko desberdinek elkarren artean egindako eragiketak, bai maileguenak bai abalenak.

7. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak behar diren prozedurak ezarriko ditu, araudiak finantza zuhurtziaren printzipioari dagokionez ezartzen dituen mugak betetzen direla bermatzeko. Printzipio hori Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan zehazturik dago.

8. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean, 75. artikuluko 3. apartatua eta 82 ter artikuluko 2. apartatua xedatutakoarekin bat, baimena ematen zaio Nafarroako Garapen Sozietatea SLri 2020an mailegu eta/edo abal eragiketa berriak egiteko Parque de la Naturaleza de Navarra SArekin, 5.900.000 euroko zenbatekoarekin gehienez, eta Dynamobel SArekin, 2.000.000 euroko zenbatekoarekin, gehienez.

## II. KAPITULUA Zorpetzea

**15. artikulua.** Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

1. Zorpetze-eragiketak egiteko baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, muga honekin:

Europako Kontuen Sistemaren arabera (SEC 2010) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren azpisektorea osatzen duten entitateen 2020ko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2020ko urtarrilaren 1ekoa baino handiagoa.

2. Artikulu honen lehen apartatua ezarritako muga gainditzen ahalko da baldin eta, hasiera batean aurreikusita ez bazegoen ere, aktibo finantzarioak eratzten badira, betiere Europako Kontuen Sistemak ezarritako irizpideak betetzen badituzte; halaber, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak hitzar litzaketan bestelako zorpetze-eragiketak egiteko, Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren baitan eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauak ezartzen dituzten mugak gainditu gabe.

3. Era berean, artikulu honen lehen apartatua ezarritako muga gainditzen ahalko da Estatuko Administrazio Orokorrekin sinatutako hitzarmen baten indarrez egin beharreko azpiegiturak finantzatzeari dagokion zenbatekoan.

4. Aurreko apartatuetan jasotako zorpetze-eragiketen jaulkipena eta, kasua bada, formalizazioa, eragiketa batean edo batzuetan gauzatzen ahalko da, eta 2020ko ekitaldiaz harago ere iristen ahalko dira.

5. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak zorpetze-estrategia egokituko du, baimendu beharreko gehieneko bolumenak errespetatuz Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontuaren egonkortasuna dela-eta adostutako mugak.

6. Nafarroako Gobernuak, hiru hilabetean behin, aurreko apartatuetan aurreikusitako zorpetze-eragiketen jaulkipen edo formalizazio guztien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

**16. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen sektoreko gainerako entitateen zorpetzea.

1. Europako Kontuen Sistemaren arabera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen sektorean sartutako entitateek Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baimena beharko dute haien zorpetze-eragiketak formalizatu aurretik, eta baimen hori gabe hartutako erabakiak erabat deusezak izanen dira.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zorpetze-eragiketa horietarako emandako baimenen berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari hiru hilabetean behin.

2. Aurreko apartatuko entitateei baimenduko zaien gehieneko zorpetze bolumenak errespetatu egiten ditu Nafarroako Gobernuak eta Ogasun

Ministerioak aurrekontuen egonkortasunaren barruan adostutako mugak.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren entitateetako arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskatzen dien informazioa eman beharko dute, behar den moduan eta epean, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontuen egonkortasunaren barruan hartutako konpromisoak betetzeko.

#### IV. TITULUA Toki entitateak

**17. artikulua.** Ohiturazko elkarteen inbertsioetarako dirulaguntzak eta onurak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako ekarpenak eta gainerako onurak jasotzen ahalko dituzte Errege Bardearen Komunitateak eta Erronkariko, Zaraitzuko eta Aezkoako batzarrek, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

#### V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

**18. artikulua.** Aurreikusitako sarrera handiagoen bidez finantzatzen diren aurrekontu-aldaketak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen II. tituluko I. kapituluko 2. atalean ezarritakoari jarraituz, kredituen sorrerak aurrekontu-aldaketak dira, kredituak handitzen dituztenak hasierako aurrekontuan aurreikusi ez ziren edo aurreikusitakoak baino handiagoak diren sarrera jakin batzuen ondorioz.

Salbuespen gisa, beste administrazio edo entitate publiko batzuek finantzatutako gastuak direnean, aurrekontuko gastuen egoera-orrian kredituak handitzen ahalko dira kasuko sarrera egiaz gauzatu gabe egonda ere, baldin eta agiri bidez frogatzen bada funtsak jarri behar dituen entitatearen edo administrazioaren finantzaketa-konpromisoa, eta kasu hauetan betiere:

a) Langileria-gastuei aurre egiteko beharrezkoak direnean.

b) Helburua prestazio pertsonal edo sozialak ematea duten aldizkako dirulaguntzei dagozkienean.

c) Finantzaketa diru-itzulketa baten bidez jasotzen duten programei dagozkienean. Egiazki izandako gastuek frogatuta egon beharko dute.

d) Beste kasu batzuetan; behar bezala frogatuta eta Nafarroako Gobernuak baimenduta egon

beharko dute, eta aurrekontuen arloko departamentu eskudunak txostena egin ondoren.

**19. artikulua.** Ordainsarien igoeraren ondoriozko aurrekontu-aldaketak.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak baimena eman dezake funts-mugimenduak egiteko "Ordainsarien igoera" izeneko 020002-04100-1800-921402 partidaren kargura, 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan aurreikusitako ordainsari igoerak eragindako gastua zer partidatan egozten den, partidak horiek finantzatzeko xedez.

**20. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren, Arartekoaren eta Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu-zuzkidurak.

1. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontu-zuzkidurak ordaintzeko aginduak irmoki eta aldizka eginen dira, bakoitzaren Mahaia, lehendakariak edo Arartekoak eskatu ahala.

2. Nafarroako Kontseilua Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren menpe egonen da, haren independentzia organiko eta funtzionala ezertan ukatu gabe.

Halaber, haren ekonomia- eta aurrekontu-jarduna Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetzaren kontrolpean egonen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat eta haren erakunde autonomoentzat ezarrita dauden baldintza beretan.

Nafarroako Kontseiluarentzako transferentzia arruntak, oro har, hiruhilekoen hasieran eginen dira, salbu eta behar handiagoak justifikatzen badira.

Kapital transferentziak Kontseiluko lehendakariak eskatu ahala eginen dira, eskaera eragin duen gastuaren beharra justifikatuta.

**21. artikulua.** Funts-mugimenduak interesen-gatik.

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiko titularrak baime-na ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko interes-ordainketarako partiden eta gaitu beharreko guztien artean, berdin delarik interes horiek zorrak, maileguez edo diruzaintzako eragiketek edo kontuetako saldoek sortutakoak izatea.

**22. artikulua.** Funts-mugimenduak Ondare Zerbitzuko Higieizinei eta altzariei buruzko Planaren obra gastuengatik

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiko titularrak baime-

na ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko partida hauen artean: 111002-11300-6020-923104 partida, "Higiezinei buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoa, 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoa, eta 111002-11300-6050-923100 partida, "Higiezinei buruzko Plana. Eraikinetako eta obretako altzariak eta hornidura" izenekoa.

**23. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkartza.

Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroak duen Bulego Iraunkorraren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordainaginduekin ordainduko dira.

**24. artikulua.** Ikasliburuen finantzaketa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira ikasliburuak eta hezkuntzako materiala finantzatzeko partiden eta haien finantzaketa egokirako gaitu beharreko partiden artean. Funts-mugimenduhoriek baimentzeko eskumena Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko titularrak izanen du.

**25. artikulua.** Funts-mugimenduak, unibertsitatez kanpoko ikastetxeen funtzionamendugastuen eta ikastetxe publikoen hornikuntzagastuen artean.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko partida hauen artean: 410000-41600-2290-322000 partida, "Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen funtzionamenduaren finantzaketa" izenekoa, eta 410001-41810-6059-325100 partida, "Ikastetxe publikoen hornikuntza" izenekoa, eta 422002-43200-6059-325100 partida, "Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen hornikuntza" izenekoa; gaitu beharreko partiden artean ere egiten ahalko dira, ikastetxeek eskatuta uztailaren 6ko 250/1992 Foru Dekretuaren 17. artikuluan jasotzen den aurreikuspena betetzeko; izan ere, foru dekretu horren bidez arautu zen Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen funtzionamenduak sortzen dituen sarreren eta gastuen araubidea.

**26. artikulua.** Eskola-garraioa eta -jantokiak.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko titularrak baimena ematen ahalko du funts mugimenduak egiteko eskola-garraiorako eta -jantokietarako partiden eta horiek modu egokian exekutatzeko gaitu beharreko partiden artean.

**27. artikulua.** Ikastetxeak eraikitzea eta bertan obrak egitea.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko ikastetxeak, bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide heziketako ikastetxeak eraikitzeko eta bertan obrak egiteko partiden eta horretarako gaitu beharreko partiden artean.

**28. artikulua.** UHUN-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuen aurrekontuko zuzkidura.

UHUNen Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen finantzaketarako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilekoen hasieran egingen dira.

**29. artikulua.** Diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru kopurua bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da 2020. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, irakaskuntza itunduaren sektorearekin negoziatu ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aldeko txostena eman ondoren, bigarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta ratioak eta artikuluko honen bosgarren apartatuan finkatutako zenbatekoa aldatzeko, bai eta aldaketaren eraginkortasun eguna ezartzeko eta harekin lotutako funts-mugimenduak egiteko ere.

Irakaskuntzako langileen ordainsariei buruz bigarren xedapen gehigarrian jasotako aurreikuspenek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute indarra, zein ere den Irakaskuntza Pribatuaren Hitzarmen Kolektiboak izenpetzen direneko data. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu, ugazaben erakunde guztiek bat etorrita espresuki horrela eskatu eta sindikatuak esaten dutena entzun ondoren, kasuan kasuko hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketa horien eragina 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izanen dela ulertuko da.

Modulutik "bestelako gastuetarako" eta, hala balitz, langile osagarrietarako den osagaiak, bigarren xedapen gehigarrian jasotakoak, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Administrazioak, ordainketa eskuordetuaren bidez, zuzenean ordainduko ditu irakasleen solda-

tetarako adierazita dauden zenbatekoak, karga sozialak barne, irakasleen eta kasuko ikastetxeko titularraren arteko lan harremana zein den ere.

“Bestelako gastuetarako” zenbatekoak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta horiek ikasturte bakoitzaren amaieran justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorrak” osatzen dituzten zenbatekoen banaketa eginen da itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Gaur egun Nafarroan ez direnez irakasten berariazko lanbide heziketako titulu guztiak, Hezkuntza Departamentuak behin-behineko zehaztuko ditu 2020-2021 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko diren eta bigarren xedapen gehigarri sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa zikloetako, oinarrizko lanbide heziketako eta lanbide lantegietako modulu ekonomikoak, eta behin-behineko aldatzen ahalko dituen aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak, 2020-2021 ikasturtearen hasierarako eraginez, haien ezarpena zein den ikusita.

3. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, batxilergoa, goi mailako edo erdi mailako heziketa zikloak, oinarrizko lanbide heziketa eta lanbide lantegiak ezarri dituzten ikastetxe itunduei finantzaketa emanen zaie Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2.2 artikulua aipatzen dituen hezkuntza-, psikopedagogia- eta lanbide-orientazio zerbiztu espezializatueterako. Finantzaketa hori honako proportzioan eginen da: eginkizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanegun oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanaldirako finantzaketa jasotzeko, maila horretan itunduta daukaten unitate kopuruaren arabera.

4. Goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; beraz, derrigorrezkoa ez den mailarako –goi mailako heziketa zikloetarako– izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa, araturiko irakaskuntzaren kontzeptu gisa soilik, hau izanen da ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoa: 36 euro ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2020ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2020ko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte; horretatik kanpo daude lantokietako lanbide heziketakoa baizik ez den kurtso batean matrikulatuta dauden ikasleak. Azken horiek 32,45 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2020-2021

ikasturteko lantokietako lanbide heziketak irauten duen hiru hilean.

Online egiten diren goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; beraz, goi mailako online heziketa zikloetako derrigorrezko irakaskuntzako ez den mailarako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa, ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoa, araututako irakaskuntzaren kontzeptuan soilik, hau izanen da: 11,01 euro hileko eta ikasleko, hamar hilabetez, 2020ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte bereko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte; horretatik kanpo daude lantokietako lanbide heziketakoa baizik ez den kurtso batean matrikulatuta dauden ikasleak. Azken horiek 9,90 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2020-2021 ikasturteko lantokietako lanbide heziketak irauten duen hiru hilean.

Ikastetxeek ikasleei diru kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuraturiko finantzaketa erabili da modulu ekonomikoko “bestelako gastuak” deitutako kapitularako eta, beraz, Administrazioak “bestelako gastuak” delako atalaren zenbatekoa osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

5. Zuzendaritzako eginkizunetan laguntzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarri ezarritakoarekin bat, finantzaketaren beharra dago. Hori dela eta, hezkuntza maila eta modalitate guztietako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomiko guztiek (foru lege honen bosgarren xedapen gehigarri finkatutakoak), lantokietako heziketa soileko unitateek izan ezik, “bestelako gastuak” kontzeptuan 771,51 euroko kopurua daukate urtean (514,34 euro goi mailako online heziketa zikloetan) zuzendaritzako eta/edo pedagogiako eginkizunetako beste kargu batzuk finantzatzeko. Hori zuzendaritza-osagarriaz gain, zeinak “gastu aldakorrak” izeneko atalean baitirau.

6. Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikastetxe itunduek, hezkuntza premia bereziak dituzten edo gizarte edo kultur egoera ahulean dauden ikasleak artatzen dituztenean, bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: ikasle horiei arretea emateko laguntza-irakasleak, logopedia zerbitzuak, eta zaindariak edo bestelako pertsonal osagarria.

Baliabide horien esleipena eginen da behar diren txosten teknikoak izanda, Hezkuntza Departamentuak deialdi publikoa onetsi ondoren.

**30. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutako eskola-jantokietan zerbitzuak ematen dituzten irakasleen ordainsariak.

Derrigorrezko irakaskuntza mailatan Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskola-jantokiak arautzen dituen uztailaren 24ko

246/1991 Foru Dekretuan eta dekretu horretan xedatutakoa garatzeko Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak emandako maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Aginduan xedatutakoari jarraikiz, jantokiko administratzaile, arduradun edo zaintzaile lanetan aritzen diren irakasleek honako ordainsari gordin hauek jasoko dituzte zeregin horretan emandako egun bakoitzeko:

BAZKALTIAKOPURUA	JANTOKIKO ARDURADUNA	ADMINISTRATZAILEA	ZAINTZAILE BAKOITZEKO
0-80	17,05 euro	15,08 euro	17,05 euro
81-160	19,04 euro	15,08 euro	17,05 euro
161-240	20,42 euro	16,89 euro	17,05 euro
+240	21,13 euro	19,35 euro	17,05 euro

**31. artikulua.** Irakasleei prestakuntza ikastaroak emateagatiko ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio- eta haren erakunde autonomoetako langileek prestakuntza jardueraren batean irakasle gisa parte hartzen badute, dela Hezkuntza Departamentuak urtero prestatzen duen Irakasleak Prestatzeko Planean jasotakoetan, dela zuzenean Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiak, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak edo Irakasleentzako Laguntza Zentroek antolatutakoetan, ordainsaria jasotzen ahalko dute, baldin eta jarduera hori beren lanalditik kanpora egiten badute. Aipaturiko ordainsariak honakoak izanen dira:

– Prestakuntza presentziala:

a.1. Ponentzia bakoitzeko, hots, aditu batek prestakuntza jarduera batean ematen duen eskola ordu bakoitzeko, 59,25 euro ordainduko dira, gehienez.

a.2. Konferentzia bakoitzeko, halakotzat ulerturik aditu batek zientzia, teknologia edo gizarte gai interesgarri bati buruz ematen duen jendaurreko hitzaldia, gutxienez 90 minutuko iraupenekoa, 361,76 euro ordainduko dira gehienez.

– Urrutiko prestakuntza:

b.1. Urrutiko prestakuntza jardueretan koordinatzaile telematikoko gisa parte hartzeagatik 1.049,11 euroko ordaina emanen da gehienez, guztira bost tutore koordinatzeagatik. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gutxiago baldin badira, ordainsaria proportzioan kalkulatu da. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gehiago baldin badira, koordinatzaile telematikokoak 98,35

euroko ordainsaria jasoko du tutore bakoitzeko, bosgarren tutoretik aurrera.

b.2. Urrutiko prestakuntza jardueretan tutore telematikoko gisa parte hartzeagatik 46,99 euroko ordaina emanen da, gehienez, tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo irakaskuntza ez-unibertsitarioko prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten unitate organikoetan destinoa duten irakasleei.

**32. artikulua.** Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ordainsariak eta osagarriak.

1. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan beren irakastordu guztiak ematen dituzten Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoa Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoko funtzionarioek jasotzen duten bera izanen da.

2. Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleek beren ordutegiaren parte bat Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ematen badute, zentro horretan emandako lanaldi-portzentajearen proportzioan jasoko dute Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoaren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoari esleitutakoaren artean dagoen aldea.

**33. artikulua.** Kilometroengatiko diru-ordaina, prestakuntza jardueretara joandako irakasleentzat.

Lanbide Heziketaren zuzendari nagusiaren edo Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ebazpe-



naren bidez deitutako prestakuntza jardueretara hezkuntza administrazioak espresuki aginduta joandako irakasleek eskubidea izanen dute kilometroengatiko diru-ordaina jasotzeko, baldin eta eskubide hori espresuki aipatuta agertzen bada kasuko ebazpenean.

**34. artikulua.** Irakaskuntzako praktiketan dauden funtzionarioen ordainsariak.

Irakasle kidegoetan sartzeko eta igotzeko izangaiek, praktiketako funtzionario izendatuak izan ondoren, honako ordainsari hauek jasoko dituzte izaera horrek dirauen bitartean: betetzen duten lanpostuaren mailari dagokion oinarrizko soldata eta ordainsari osagarriak; halaber, antzinasun saria, graduari dagokion ordainsaria eta familia laguntza, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako administrazio-kontratudunentzat orokortasunez ezartzen den beste edozein ordainsari ere.

**35. artikulua.** Irakaskuntzako zenbait lanposturen ordainsari osagarrien aldaketa.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio maisu-maistren kidegoko funtzionarioen irakaskuntzako osagarri berariazkoaren esleipena aldatzeko, Bigarren Hezkuntzan aniztasunari erantzuteko eginkizunak bete ditzaketen espezialitateetan, baldin eta aurretiaz azterketa bat egiten bada jakiteko zenbat diren ikastetxeetan lanpostu horiek, eta nolakoak, eta, betiere, azterketa horrek guztizko gastua handitzerik ekartzen ez badu.

**36. artikulua.** Lanbide-gaitasunen ebaluazio, aitorpen eta egiaztatze prozeduretan esku hartzen duten irakaskuntza publikoko langileentzako ordainsari konpentsazioak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko irakasleak, lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozeduretan aholkularitza edo ebaluazio faseetan esku hartzeko izendatutakoak, arlo horretan eskumena duten departamentuek deitutakoak, 66/2014 Foru Dekretuan araututakoarekin bat, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute; foru dekretu horrek pertsonen lan-espereziaren edo prestakuntza bide ez-formalen bidez lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura finkatu zituen.

a) Egiaztatze prozedurako aholkulariak:

Izangai bakoitzagatik jaso beharrekoa, hauek hartzen dituen:

– Aholkua emandako 3 gaitasun unitate gehienez 120 euro

– Aholkua emandako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate 150 euro

– Aholkua emandako 6 gaitasun unitate baino gehiago 180 euro

Izangai berarentzat lanbide arlo bereko kualifikazio gehigarri bat emateagatik jaso beharreko osagarria 50 euro

b) Egiaztatze prozedurako ebaluatzaileak:

Izangai bakoitzagatik, ebaluatzaile nagusia izateagatik jaso beharreko konpentsazioa, hauek hartzen dituen:

– Ebaluatutako 3 gaitasun unitate gehienez 130 euro

– Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate 165 euro

– Ebaluatutako 6 gaitasun unitate baino gehiago 200 euro

Izangai bakoitzagatik, bigarren mailako ebaluatzaile gisa jaso beharreko konpentsazioa, hauek hartzen dituen:

– Ebaluatutako 3 gaitasun unitate gehienez 60 euro

– Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate 75 euro

– Ebaluatutako 6 gaitasun unitate baino gehiago 90 euro

Ebaluazio batzordeko arduradun izateagatik jaso beharreko konpentsazioa (taldeko)

– Ebaluazio batzordeko burua 200 euro

– Ebaluazio batzordeko idazkaria 100 euro

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza eta ebaluazio saioen prestaketa eta garapena; izangaiei arretea zuzena ematea; prozeduraren agirien kudeaketa; eta koordinazio lana deialdia egiten duten administrazioekin.

2. Nafarroako Gobernuak baimena ematen ahalko du, foru dekretuaren bidez, prozeduran esku hartzeagatik konpentsazioa emateko aholkulari eta ebaluatzailez beste pertsona batzuei, haien laguntza beharrezkotzat jotzen bada lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozedurak behar bezala betetzeko.

**37. artikulua.** Ikerkuntzaren sustapena.

Osasun zientzien arloan Osasun Departamentuak sustatzen dituen ikerketa-proiektuak haren inbertsio berekitzat joko dira, eta ez zaie aplikatuko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa, salbu eta aurrerakinei dagokienez, zeinak arau horretan ezarritakoaren arabera antolatuko baitira.

**38. artikulua.** Organo-transplanteen sustapena.

Ospitaleek organo-transplanteak sustatzeko jasotzen duten diru kopuru finalista ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan nahiz ondasun inbertariagarrietako gastuetan erabiltzen ahalko da, jasotako diru horren helburuarekin lotura baldin badute betiere.

**39. artikulua.** Gehikuntza izan dezaketen kredituen kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko 54. programa multzoko aurrekontu-partiden eta gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoek gehikuntza izan badezakete foru lege honen 5. artikuluko 6. apartatuko a) eta i) letretan adierazitakoaren arabera.

**40. artikulua.** Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren aurrekontuko 810012-81500-4819-494108 partida, "Sindikatuentzako transferentziak, haien ordezkagarritasunaren arabera" izenekoak, haien guztien artean banatuko da bakoitzak Foru Komunitatean duen ordezkariaren arabera, kontuan harturik 2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitarteko epean egindako hauteskundeetako eta boto-kontaktetako aktetan adierazitako emaitzak. Ordezkaritza-mandatuak indardun izan beharko dute azken data horretan, hala xedatuta baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren ekainaren 16ko 26E/2017 Foru Aginduan, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroan lortu duten ordezkari kopuruaren arabera sindikatuak beren jarduerak arruntak gauzatzeko ematen zaien dirulaguntzaren araubidea, bai eta urteko deialdian ere.

810012-81500-4819-494103 partida, "Hauteskunde sindikalen prozesuaren jarraipenerako batzordea osatzen duten sindikatuak bertan parte hartzeagatik eman beharreko konpentsazioa" izenekoak, urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuen artean banatuko da, bertan

bakoitzak duen ordezkari kopuruaren proportzioan.

810012-81500-4819-494114 partida, "Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea. ANEL" izenekoak Nafarroako Ekonomia Sozialeko Enpresen Elkarteak (ANEL) izenekoaren azpiegiturako eta mantentze-lanetako gastuak ordaintzeko erabiliko da, ekonomia soziala bultzatu, garatu, sustatu eta indartzeko xedea bete dezan.

810012-81500-4819-494118 partida, "Laneko arriskuen prebentziorako jarduketak. Sektorearteko akordioa sinatu duten entitateak" izenekoak, akordioa sinatu duten gizarte-eragileen artean banatuko da, akordioan laneko arriskuen prebentziorako ezartzen diren jarduketetan duten parte-hartzearen proportzioan.

810012-81500-4819-494113 partida, "Enpresaburuen elkarteentzako transferentzia, haien ordezkagarritasunaren arabera. CEN" izenekoak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren azpiegiturako eta funtzionamenduko gastuak ordaintzeko izanen da, bere funtsezko helburuak, erakundearen estatutuen 4. artikuluan jasotakoak, bete ahal izan dituzten.

810012-81500-4819-494111 partida, "Gizarte-eta enpresa-eragileentzako transferentzia, haien parte-hartzearen arabera" izenekoak, gizarte-eta enpresa-eragileen parte-hartze instituzionala sustatzeko izanen da, hala ezarrita baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren azaroaren 3ko 222/2016 Foru Aginduan, zeinaren bidez arautzen baitira erakunde sindikalek eta enpresaburuen erakundeek beren parte-hartzeagatik jasoko dituzten konpentsazioak.

810012-81500-4819-494100 partida, "Berrikuntza Sozialerako Unitatea elkartearentzako dirulaguntza, funtzionamendurako" izenekoak, Berrikuntza Sozialerako Unitatea Elkartearen azpiegiturako eta mantentze-lanetako gastuak ordaintzeko erabiliko da, bere helburua bete ahal izateko, alegia, berrikuntza soziala sustatu eta bultzatzea eta desafio sozialei erantzuteko eta garapen ekonomiko berritzailea, soziala, jasangarria eta pertsonengana zuzendua sustatzen duten bide berritzaileak lankidetzan sortu eta garatzea, jarduerak enpresariala eta kalitatezko enplegua sortzearekin batera.

950002-96200-4819-242106 partida, "Prestakuntza-premiak ikertu eta planifikatzeko jardueretan parte hartzeagatik konpentsazioa" izenekoak, banatuko da Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

**41. artikulua.** Gastu konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du urte anitzeko gastu konpromisoak hartzeko baimena ematea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimentzen dituen gain, kasu hauetan:

a) Etxebizitza babestuen sustatzaileei, eskurtzaileei, erabiltzaileei eta esleipen-hartzaileei dirulaguntzak emateko, eta etxebizitzak birgaitzeko, baldin eta ez badira gainditzen aurreko ekitaldian helburu horretarako ezarritako zenbatekoak.

b) Ondasun higiezinaren errentamendua egiteko.

c) Esparru-akordioak edo -kontratuak egiteko, kontratazio publikoari buruzko araudiaren arabera indarraldi luzeagoa izan dezaketenak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak urte anitzeko gastuetarako ezartzen duena baino.

d) Europar Batasunak eta/edo Estatuko Administrazio Orokorrek kofinantzatzen dituzten planak, programak eta ekimenak aurrera eramateko, bai eta haiek sortutako betebeharrak aurre egiteko ere, bost urtetik goitiko plangintza behar badute.

e) Interes-hobariak emateko, enpresek I+G+b proiektuak finantzatzeko eta zentro teknologikoei eta azpiegitura zientifiko eta teknologiko berezietan dirulaguntzak emateko hitzartzen dituzten kreditu edo mailegutan.

f) Telekomunikazioetako edo informatikako sareekin edo azpiegiturekin zerikusia duten zerbitzuak kontratatu edo enkargatzeko.

g) Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuak ezarritako dirulaguntzak emateko. Dekretu horren bidez, enplegua erregulatzeko 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 espedienteek ukitutako langileak lanerazten laguntzeko eta haietarako laguntza bereziak ezartzeko neurriak hartu ziren.

h) Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko hezkuntza itunak berritzeari dagozkionez.

i) Toki entitateei dirulaguntzak emateko, hirigintzako udal planeamenduak egin edo berrikus dituzten.

j) NBEUF eta LGENF funtsetako kontuen auditoria zerbitzuen kontratua 2021-2027 aldirako lizitatu eta adjudikatzeko.

2. Hezkuntza Departamentuak bekak eta laguntzak ematen ahalko ditu, eta eskola-garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatu, bai eta ikastetxeak, bigarren hezkuntzako institutuak eta lanbide heziketako ikastetxeak eraikitzeko espedienteak izapidetu ere, eta xede horrekin hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura gastu konpromisoak hartu, betiere konpromiso horiek aurrekontu-ekitaldia ez den urte-aldi bati badagozkio, ikasturteko beharrei erantzunez.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak bekak eta laguntzak ematen ahalko ditu, eta horretarako, hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura gastu konpromisoak hartu, betiere konpromiso horiek aurrekontu-ekitaldia ez den urteko aldi bati badagozkio, ikasturtearen beharrei erantzunez.

**42. artikulua.** PFEZaren %0,7ko Funtseko kredituen kudeaketa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira PFEZaren %0,7ko Funtzari dagozkion partiden artean, baita gastuaren kudeaketa hobea izateko beharrezkoak direnak sortu ere.

Partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**43. artikulua.** Gizarte inklusiorako prestazioetarako kredituen kudeaketa.

Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu "Gizarte-inklusioko laguntza bereziak" izeneko 900002-91100-4809-231502 partidaren eta "Gizarte larrialdietako laguntzak" izeneko 900003-91600-4609-231503 partidaren eta gaitu beharrikoen artean.

**44. artikulua.** Gizarte Zerbitzuen Zorroak mendekotasunaren, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arretarako bermatzen dituen prestazioetarako kredituen kudeaketa.

Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu partida hauen eta helburu berretarako gaitu beharrikoen artean:

a) 920005-93100-2600-231B04 partida, "Zaharrentzako zentroen kudeaketa" izeneko.

b) 920005-93100-2600-231B05 partida, "Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroen kudeaketa" izeneko.

c) 920005-93100-2600-231B06 partida, "Gaixo mentalentzako zentroen kudeaketa" izenekoa.

d) 920004-93200-4809-231B00 partida, "Zerbitzuari lotutako laguntzak" izenekoa.

e) 920004-93200-4809-231B02 partida, "Zerbitzu pertsonalei arreta emateko laguntzak" izenekoa.

**45. artikulua.** Gizarte Zerbitzuen Zorroak haurrei eta nerabeei arreta emateko bermatzen dituen prestazioetarako kredituen kudeaketa.

Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu 920008 proiektuko partiden eta gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoek gehikuntza izan badezakete foru lege honen 5. artikuluko 9. apartatuan adierazitakoaren arabera.

**46. artikulua.** Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programa finantzatzeko kredituen kudeaketa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programa finantzatzeko aurrekontu-partiden eta hura behar bezala betetzeko gaitu beharreko partiden artean.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokio, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**47. artikulua.** Kreditu-txertaketak, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7 arautzeari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeari dagozkion baina exekutatu ez den gastuarengatik.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7 arautzeari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeari dagokion gastua, Nafarroako aurrekontu orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikia izanen da, eta hurrengo aurrekontu ekitaldian sartzen ahalko da.

**48. artikulua.** Hondakinen Funtseko kredituen kudeaketa.

Funts mugimenduak egiten ahalko dira Hondakinen Funtsari dagozkion partiden artean, eta gastuaren kudeaketa hobea izateko beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokio, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**49. artikulua.** Hondakinen Funtsari dagozkion eta exekutatu gabe dauden gastu kredituen txertaketak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako gastua, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak sortutako hondakinen funtsari dagokiona, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikia izanen da eta hurrengo aurrekontu ekitaldian txertatzen ahalko da.

## VI. TITULUA Kontratazioa

**50. artikulua.** Garraioaren arloko eskudantziak.

Garraio zerbitzuak kontratatzeko eta garraio jarduerak xede dituzten dirulaguntzak emateko, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraio Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

**51. artikulua.** Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura-kontratuak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen menpeko zentroek produktu freskoak erosten ahalko dituzte hornitzaileei hamabost egunean behin eskaintzak eskatuz, urte osorako adjudikaziora jo beharrik gabe.

2. Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak hornigaiak erosten ahalko ditu bere mendeko zentroetarako, hornitzaileei eskaintzak eskatuz bi, hiru edo lau hilean behin, urte osorako adjudikaziora jo beharrik gabe.

**52. artikulua.** Osasun Departamenturako eta haren erakunde autonomoetarako ondasun eta zerbitzuak erostea, informazio sistemen eta zerbitzu eta aplikazio informatikoen arlokoak.

Osasun Departamenturako eta haren erakunde autonomoetarako ondasun eta zerbitzuen erosketak, informazio sistemen eta zerbitzu eta aplikazio informatikoen arlokoena, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusiak egiten du, Osasunbidea-Nafarroako

Osasun Zerbitzuaren aurrekontuko partiden kargura finantzatuta.

**53. artikulua.** Nafarroako Ubidearen Eremu ureztagarria handitzeko 1. faserako kontratua.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzea arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen eskumenak, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarria handitzeko 1. faseko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko herri-lanen emakida kontratuan dituenak, salbu eta lurzatiak

biltzeko prozesuei eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko adierazpenei eta haien aldaketei dagozkienak. Emakida kontratuaren obra proiektuen eta haien aldaketen onespenean administrazioa Lurralde Kohesiorako Departamentuak eginen du.

**54. artikulua.** Nekazaritzako estatistika-lanetan laguntzeagatiko diru-ordainak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak diru-ordainak ematen ahalko dizkie nekazaritzaren arloko estatistikan laguntzen duten pertsoneri, laguntza horrek sortzen dizkien gastuengatik, betiere muga hauekin (eurotan, urtero):

Urte osoko labore-azalerak	75
Urte osoko labore-ekoizpenak	75
Abeltzaintzako beste ekoizpen batzuen ebaluazioa	250
Lurraren prezioak	1.300
Landa errentamenduen kanonak	350
Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen asteko prezioak	1.750
Nekazariak eta abeltzainak jasotako prezioak	1.100
Nekazariak eta abeltzainak ordaindutako prezioak	600
Munta txikiko produktuen prezioak	300
Nekazaritzako ordainsariak	200
Kontu makroekonomikoak	200
Meteorologia-Osoa	1.325
Meteorologia-Erdizka	1.175
Meteorologia-Termoplubiometrika, elurrari buruzko informazioarekin	980
Meteorologia-Termoplubiometrika	750
Meteorologia-Plubiometrika	665
Meteorologia-Erdizka, elurrari buruzko informazioarekin	1.405

**55. artikulua.** Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEUF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) heldu diren laguntzak kontrolatzeko laguntza kontratua.

Europako Batzordeak 2014ko martxoaren 11n emandako 907/2014 (EB) Erregelamendu delegatuaren bidez osatu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamendua, erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerrari dagokionez; hori horrela, bermatze aldera betetzen direla erregelamendu delegatu horrek Europako NBEUF eta LGENF funtsen kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez ezartzen dituen betebeharrak, Landa

Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak laguntza kontratuak egiten ahalko ditu, kontrolatu eta egiaztatze aldera Europako funts horietatik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri gisa hartzen diren egitateak, edo laguntze aldera Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen eginkizunak betetzen. Era berean, eginkizun horiek betetzeko mandatua eman diezaike Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalei.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Toki entitateen parte-hartze funtsaren tratamendua.

1. Toki entitateek Nafarroako Tributueta duten Parte-hartzeen Funtsa osatzeko Nafarroako Parlamentuak 2020ko ekitaldirako onetsitako kre-

dituek, kapital transferentzien arloan, aurreko ekitaldian sortutako diruzaintzako gerakin atxikia kontsumituko dute. Era berean, ekitaldia ixtean aurrekontu-erabilerarik izan ez duten kredituak, jatorria ekitaldi itxietako ekonomietan dutenak, bai eta Toki Inbertsioen Planaren araudia aplikatuz itzultzen diren kopuruak ere, funts horri atxikitako diruzaintzako gerakinak izanen dira. Gerakin hori ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-kredituarekin batera esleitzen ahalko da, aurrekontuaren exekuzio mailaren arabera eta sarreraren aurreikuspenek horretarako bidea ematen badute, toki entitateei planean sartutako obrak egiteagatik ematen zaizkien dirulaguntzak finantzatzeko.

2. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko titularrak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu Toki Inbertsioen Planeko partiden artean, programaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen direnean. Era berean, toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsaren partidetan sartutako kredituen artean ere funts-mugimenduak egiten ahalko dira, kapital transferentzien arloan, hala inbertsio plan bereko aurrekontu-partiden artean, nola plan desberdinetako partiden artean.

Halaber, Toki Inbertsioen Planaren barruan aurrekontu partidak sortzen ahalko dira, programaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen direnean.

3. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren ekarpenen banaketari dagokionez, aldi horretarako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 4. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, zuzkidurak Inbertsioen Programan, Toki Programazioaren eta Libreki Erabaki Beharrekoen ataleko kontzeptu desberdinen artean birbanatuko dira.

4. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko du Toki Inbertsioen Planeko kredituen artetik plan zuzentzaileetako azterlan eta proiektuak finantzatzeko diren kredituak kudeatzeko lana, dela ente instrumental bati enkargua emanez, dela kontratu publikoei buruzko foru legeriaren araberrako kontratazio baten bidez, horren barne delarik haiek garatu eta gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu, inbertsio eta jarduketekin lotura duten edonolako gastuak. Edozein kasutan, ulertuko da Gastuen Aurrekontuan kudeaketa horretarako aitortzen diren betebeharrak Toki Inbertsioen Planaren gastu berekia direla.

5. 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 4. artikuluan aurreikusitako finantzaketa ez duten hiri

zeharbideen urbanizazio proiektuen kostuan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak finantzatu beharko lukeen zatia kredituen kargura ordainduko da, kasuan kasuko fakturak aurkeztu ondoren.

6. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko titularrak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsaren partiden artean, transferentzia arrunten arloan, programaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen direnean.

Halaber, Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen Funtsaren barruan, transferentzia arrunten arloan, aurrekontu partidak sortzen ahalko dira, programaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen direnean.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Ikastetxe itunduetako hezkuntza-maila eta -modalitate desberdinetan, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko zenbatekoak kontzeptu hauetan daude banatuta: "Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne", unitate itundu bakoitzeko irakasle titular eta agregatuaren ratioa zehaztuta, "Gastu aldakorrak" eta "Bestelako gastuak", kontzeptu bakoitzak modulu osoarekiko egiten duen portzentajea adierazita, l. eranskinean jasotakoak izanen dira.

"Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne" kontzeptuan biltzen da irakasleen ordainsarien eta haien gizarte-kargen ondoriozko kostua, irakaskuntza mailen arabera.

"Gastu aldakorrak" kontzeptuan biltzen dira, irakasleen antzinatasunaren kostuaz eta horrek Gizarte Segurantzaren duen eraginaz gain, irakasleen ordezkapenen kostua, zuzendaritza-osagarriarena eta Langileen Estatutuaren 68.e) artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharrak.

Diru kopuru horiek funts orokor batean bilduko dira, zeina irakaslez irakasle banatuko baita ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzaren egoeraren inguruabarren arabera.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Ika-liburuen doakotasunerako programako liburuen salmenta.

Ika-liburuen doakotasunerako programako liburuak saltzen ahalko dira, bakar-bakarrik, liburu-salmentan jarduteko gaikuntza ematen dien baimena daukaten establezimenduetan.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Irakasleen irakastorduak zehaztea.

Irakasle-lanpostuak ikasturte bakoitzaren hasieran dauden beharrezko arabera betetze aldera, eta baldin eta kasuan kasuko espezialitatean ez badago irakastordu nahikorik, unibertsitateaz kanpoko irakasleek beste espezialitate batzuetan irakatsiz osatuko dute beren ordutegia, Hezkuntza Departamentuak ezarritako kasuetan eta baldintzetan betiere.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Ikastetxe publiko berriak.

Hezkuntza Departamentuak, ikastetxe publiko bat sortu baino lau hilabete lehenagorainoko aurrerapenez izendatzen ahalko ditu irakaskuntzako zuzendaritza-karguak, zeinek erregelamendu organikoetan ezarrita dauden eginkizunak beteko baitituzte.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Lanbide karrerako maila aitortua aplikatzea Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei.

Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu finkoa lortzen duten fakultatiboek Osasun Sistema Nazionalerako beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie, espezialitate, lanbide kategoria edo titulazio-talde berari dagozkionak. Gradu horien ordainsariak apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta hura garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera ordainduko dira. Foru lege horren bidez arautu zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile fakultatiboen lanbide karrerako sistema.

Osasun Sistema Nazionalerako beste zerbitzu batzuetatik iritsitako langileei, Osasun Departamentuko erakunde autonomoetan lanpostu bat zerbitzu eginkizunetan betetzen badute, Osasun Sistema Nazionalerako beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie. Gradu horien ordainsariak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-langileen lanbide karrerako araudian ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Arazoak dituzten enpresei zorrak geroratzeko baldintza bereziak.

Zuzendaritza nagusi eskudunak proposaturik, Nafarroako Gobernuak baldintza bereziak jartzen ahalko dizkie arazoak dituzten enpresentzat ezarritako laguntza-araubideari atxikitako enpresei, Nafarroako Foru Komunitatearekin dituzten zorren zatikapen eta geroratzeari egiteko, enpresa bere bitartekoak erabiliz bideragarria izateko beharrez-

koak diren amortizazio-epe eta -sistemari dagokionez, eta, halakoetan, aplikatuko den interes-tasa ez da izanen legezko interes indardunaren ehuneko 50 baino gehiagokoa. Aipatutako araubidea Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren irailaren 3ko 397/2012 Foru Agindua- ren bidez ezarri zen. Gainerako baldintzei dagokionez, zorrak zatikatzeko eta geroratzeko oro har ezarritakoak izanen dira.

**Zortzigarren xedapen gehigarria.** Eskubide sozialen arloko prestazio bidegabeki jasotakoak izultzea.

Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak ordaindutako aldizkako prestazio eta pentsio gisa bidegabeki jasotako kopuruak zatika itzul daitezen ezarriko du Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, aipatu diren erakunde autonomoek eta zuzendaritza nagusiak proposatuta, kasua bada; eta ez du ez interesik ez bermerik eskatuko.

**Bederatzigarren xedapen gehigarria.** Osasun zentroyen funtzionamendurako transferentziak.

547001-52300-4609-312200 proiektuko aurrekontu partidan, "Osasun zentroyen funtzionamendurako transferentziak" izenekoan, Nafarroako udalen jabetzakoak diren herrietako kontsultategien eta kontsultategi osagarrien funtzionamendurako den horretan, dagoen zenbatekoa banatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak urtero onesten dituen gehieneko zenbatekoak eta moduluak hartuko dira kontuan, eta ez zaio aplikatuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Edozein kasutan, kontsultategi mota eta azalera hartuko dira kontuan modulu horietan.

Toki-kontsultategien ekipamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua arduratuko da, kasua bada.

**Hamargarren xedapen gehigarria.** Transferentzien Batzordea.

Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuaren bidez eratutako Transferentzien Batzordean Nafarroako Gobernuak duen ordezkari-tokia izanen dute propio eskatu duten edo eskatuko duten parlamentu-talde guztiek. Estatuko zerbitzuen transferentziari Nafarroako Gobernuaren ordezkari-tzak adostasuna emateko, talde parlamentarioen ordezkari gehienek aldeko botoa beharko da, eta horretarako, ordezkari bakoitzak bere taldea osatzen duten foru parlamentari adina boto izanen du.

**Hamaikagarren xedapen gehigarria.** Aldi baterako kontratua duten medikuen eta fakultatibo espezialisten eskusibotasun araubidea.

2020an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia ezartzen duen 11/1992 Foru Legeko A.1 eta A.2.5 estamentuetako langileen aldi baterako kontratazio berriak dedikazio eskusiboaren araubidean eginen dira. Profesional kontratatuei aukera emanen zaie dedikazio ez-esklusiboko araubidea hautatzeko, eta kontratazioaren lehen egunetik egiteko aukera izanen dute. Salbuespeneko neurri hori aplikatuko da betetzen zailak diren espezialitate eta lanpostuetan; zerbitzuak hori justifikatzen duen txostena egin beharko du alde zuzenetik.

**Hamabigarren xedapen gehigarria.** Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako lan publikoaren eskaintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitateaz kanpoko irakasleen lanpostuak, erretiroaren, heriotzaren, ukoaren edo lanpostu-erreserbarik ez dakarren beste edozein egoera administratiboren ondorioz hutsik gelditzen direnak, besterik gabe esleituko zaizkio plantilla organikoan jatorriko irakasle kidegoari, zehaztu gabe lanpostuen gainerako ezaugarriak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan publikoaren eskaintzetan ezarriko da irakasle kidego bakoitzeko zenbat lanpostu sartzen diren. Lan eskaintza horietan sartutako lanpostuen ezaugarriak plantilla organikoa aldatzeko foru dekretu batean ezarriko dira sartzeko hautapen proben deialdia egin aurretik, eta gutxienez espezialitatea eta hizkuntza zehaztuko dira kasu guztietan.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 69. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta aurrerantzean testu hau izanen du:

“Nafarroako Gobernuaren web atariak komunikazioaren, antolaketa administratiboaren eta informazio sistemen gaietako eskumenak dituzten departamentuak izanen ditu arduradun eta kudeatzaile tekniko; sarbide bateratua izanen du”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen honako artikuluko hauek testu hau izanen dute:

1. 59.2 artikuluko h) letra gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“h) Kontratu bat betetzeak berekin dakarrenean entitate kontratatzaileek datu pertsonalak jakinaraztea kontratistari, jaso beharko da datu horiek jakinaraztearen helburua.”

2. 66.3 artikuluko d) letra gehitzen zaio, testu honekin:

“d) Kontratu bat betetzeak berekin dakarrenean entitate kontratatzaileek datu pertsonalak jakinaraztea kontratistari, kontratua betetzeko baldintza berezia eta funtsezkoa izanen da kontratista datuen babesaren arloko Espainiako eta Europar Batasuneko araudiaren menpe egotea. Aurrekoa aplikatuz, kontratistak betebeharrak hauek izanen ditu bereziki:

Lehen. Kontratu formalizatu aurretik adierazpen bat aurkeztea, haren bidez jakinarazteko non egonen diren zerbitzariak, haiekin lotutako zerbitzuak emateko baliatuko direnak.

Bigarrena. Kontratu formalizatu aurretik adieraztea aurreikusirik ote duten zerbitzariak edo haiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzea, bai eta azpikontratistaren izena ere; hark bete beharko ditu kontratu horren zatia betetzeko beharrezkoak diren kaudimen baldintzak.

Hirugarrena. Aurreko adierazpenean emandako informazioari dagokionez, kontratuaren bizitzan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztea.”

3. 138. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Kontratazio espedientea kontratuaren kudeaketa unitateak emandako txosten arrazoitu baten bidez hasiko da; txosten horretan ase gogo diren beharren izaera eta neurria azalduko da, bai eta hauek ere: beharrak asetzeko xedearren egokitasuna, kontratuaren xede diren prestazioen ezaugarriak eta balio zenbatetsia, prezioa merkatuarekin bat datorren, adjudikazio irizpideak kontratuaren xedearekin lotura duten, kontratazio-rako prozeduraren hautaketa eta kaudimen irizpideak, ondasun eta zerbitzuen hartzaileen behar berariazkoak eta inguruabarrak, eta beharrezkotzat jotzen diren beste guztiak. Kontratu bat betetzeak berekin dakarrenean entitate kontratatzaileek datu pertsonalak jakinaraztea



kontratatari, jaso beharko da datu horiek jakinaraztearen helburua.”

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen artikuluko hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

1. 7. artikulua 4. apartatua aldatzen da:

“4. Babes ofizialeko etxebizitzat hartuko dira etxebizitza babestuaren mota honetarako legez eta erregelamenduz ezarritako betebeharrak beteagatik behar den kalifikazioa lortzen duten etxebizitzak. Babes ofizialeko etxebizitzak metro koadro erabilgarriaren azkeneko prezioa ez da izanen etxebizitza horietarako eta erantsitako garajerako indarra duen modulu ponderatua baino 1,30 aldiz handiagoa. Era berean, beste eranskinetarako erabiltzen den metro koadro erabilgarriaren gehieneko prezioa ez da izanen tipologia honetako etxebizitzetarako erabiltzen den metro koadro erabilgarriaren gehieneko prezioaren 100eko 40tik gorakoa.

Lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuak gehienezko salmenta-prezioan izanen duen oihartzuna, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, ez da 100eko 17,5 baino handiagoa izanen, edo 100eko 30 baino handiagoa sustapenaren alokairuko etxebizitzak direnean, erosteko aukerarik gabe eta planeamenduan babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko erreserbatuak ez dauden lurzatiak”.

2. 20. artikulua 6. apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“6. Babes ofizialeko etxebizitzak erosteko aukerarik gabeko alokairu araubidekoak direnean, planeamenduan babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko erreserbatuak ez dauden lurzatiak eraiak, etxebizitzak esleituko dira aurreko apartatuetan aurreikusitako erreserbak errespetatuz, baina etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsuaren bidez esleituko dira soilik Nafarroako edozein udalerritan errolatuta daudenentzako erreserbakoen erdiak. Gainerako etxebizitzak, 100eko 100 egin arte, haiek eskuratzeko baldintza orokorrak betetzen dituzten pertsonen edo familia unitateei esleituko zaizkie, etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena emateko alde aurreko baldintza eskatu gabe.”

3. Hamaseigarren xedapen gehigarriari apartatu berri bat gehitzen zaio, eta 6. apartatua zena 7. apartatua izanen da:

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Etxebizitza hauen sustatzaileentzako dirulaguntzak: erosteko aukerarik gabeko errentamendu-araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzak, 60 urte baino gehiagoko edo desgaitasuna duten pertsonentzako alokairuko apartamentu babestuak, eta erabilera-lagapeneko araubidekoak diren babes ofizialeko etxebizitzak.

1. Erosketa-aukerarik gabeko errentamendu-araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzak eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaitasuna dutenentzako apartamentu babestuen sustatzaileek honako dirulaguntza hauek lortzen ahalko dituzte:

a) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzak (eranskinek gabe) gehieneko salmenta-prezioaren %23.

b) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzak (eranskinek gabe) gehieneko salmenta-prezioaren %35, baldin eta sustatzaileak eskatzen badu etxebizitza babestuen babes-araubide aplikagarriaren iraunaldia 30 urtekoa izatea.

Letra honetan ezarritako portzentajea ezin izango zaio batu a) letran ezarritakoari.

2. Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuak, erabilera-lagapeneko araubideko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzen badituzte, kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitza babestuen (eranskinek gabe) gehieneko salmenta-prezio teorikoaren %25eko dirulaguntza jasotzen ahalko dute, baldin eta elkarteko lehen bazkide bakoitzaren familiaren sarrera ponderatuak txikiagoak badira babes ofizialeko etxebizitza erosteko dirulaguntzak eskuratu ahal izateko eskatzen direnak baino. Dirulaguntza hau eta foru lege honen hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa bateraezina izanen dira.

3. Dirulaguntzak behin-behineko kalifikazioan erabakiko dira. Behin-behineko kalifikazioa izan ondoren, sustatzaileak edo elkarteak dirulaguntzaren %50eraino jaso ahalko du, onetsitako dirulaguntzaren zenbatekoa estaliko duen abala aurkeztu ondoren. Dirulaguntzaren gainerakoa behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da.

4. Baldin eta sustatzaileak edo elkarteak errentamendu-araubidea edo erabilera-lagapeneko araubidea aldatzen badute etxebizitzak babes-araubideari loturik dirauen bitartean etxebizitza arloan eskudun den departamentuak horretarako baimenik eman gabe, jasotako kopuru guztiak itzuli beharko dituzte, horrek ezertan galarazi gabe

bidezkoak diren bestelako zehapen batzuk eta legezketasuna berrezartzeko ekintzak.

5. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako dirulaguntza lortzen ahalko dute behin-behineko kalifikazioa foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera eskatzen duten babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak bakarrik. Beharrezkoa izan da kasuko etxebizitza-sustapena egitea espedientearen behin-behineko kalifikazioa eskatzen den unean 100 alokairu-eskaera baino gehiago (etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldako datuen arabera) dauden herrietan, salbu eta sozietate publikoek edo toki entitateek sustaturiko etxebizitzaren kasuan edo toki entitatearen udalak etxebizitza-sustapenaren aldeko ebazpena ematen badu.

6. Erostea aukerarik gabeko errentamendu-araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzak eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaitasuna dutenentzako alokairuko apartamentu babestuak sustatzen dituztenek babestutako birgaitzerako dirulaguntza jasotzen ahalko dute, aurrekontu babesgarriaren %80 artekoa eta 25.000 eurokoa gehienez etxebizitza bakoitzeko, baldintza hauekin betiere:

- Etxebizitzek gutxienez 25 urte izatea

- eta sustatzaileak etxebizitzak errentamendurako erabili izana babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako baldintzekin, eta konpromisoa hartzea beste 15 urtez baldintza berdinetan erabiltzeko, birgaitze babestuari buruzko espedientearen behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita; hala egiten ez badu baldintza horiekin jasotako dirulaguntza itzuli beharko du.

7. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoa erregelamendu bidez garatu edo aldatzen ahalko da”.

**Azken xedapenetako laugarrena.** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren artikulua hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

1. 55. artikulua 6. apartatua aldatzen da:

“Lurzoru urbanizagarriko sektoreetan, nagusiki bizitegiarako erabiltzen direnetan, planeamenduak lur erreserba bat zehaztu beharko du udalez gaindiko zuzkiduraren izaerarekin; erreserba

horrek 3 metro koadroko azalera izan beharko du, gutxienez, bizitegiarako eraikitako 100 metro koadroko, eta orube izaera izanen du; erreserba hori errentamendu-araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeke kalifikatuko da. Lur horiei esleituko zaien eraikigarritasuna ez da izanen, guztira, sektoreak osotara duen eraikigarritasunaren % 7tik beherakoa. Lurzati horietan, eraikinen hirigintza-baldintzak inguruko lurzatiakoei dituztenen antzekoak izan beharko dira. Lurzati horietako eraikigarritasuna ez da kontuan hartuko udalari nahitaez egin beharreko aprobetxamenduaren esleipena kalkulatzeko, eta ez da gainerakoekin batuko sektorearen gehieneko aprobetxamendua kalkulatzeko; horrez gain, ez du zuzkidura publikoetarako erreserbarik sortuko.

Apartatu honetan aurreikusitako erreserbatik ateratzen den lurzatiak 300 metroko azalera edo txikiagoa izanez gero, kokatuta dagoen udalerraren ondarean sartuko da, eta udalak zuzkidura publikoetarako erabili beharko du.”

2. 98. artikuluko b) letra aldatzen da:

“b) Nahitaez eta dohainik lagatzea planeamenduko orokorrak, hala denean, dagokion esparruaren barrenean sartu edo atxikitzen dituen sistema orokorrak exekutatzeko behar den lurzoru guztia, bai eta udalez gaindiko zuzkiduretarako lurra ere, bertan errentamendu-araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeke.”

3. 187. artikulua 3. apartatua aldatzen da:

“3. Planeamenduaren arabera errentamendu-araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeke diren udalez gaindiko zuzkiduretarako lurra nahitaezko eta doako lagapenaren bidez eskuratuko dira, sektore bakoitzean behar den lurzoru urbanizagarria finkatu ondoren.”

4. 234. artikulua aldatzen da:

“Lurzoru Publikoaren Foru Bankuan sartuko dira Foru Komunitateko Administrazioak aurreko artikuluan adierazitako helburuarekin eskuratutako lurra, bai eta Nafarroako Ondareko ondare sunak ere, Lurzoru Publikoaren Foru Bankuari atxikitzen zaizkionak.

Era berean, Lurzoru Publikoaren Foru Bankuan sartuko dira errentamendu-araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeke diren udalez gaindiko zuzkiduretarako lurra, lagapenaren bidez eskuratutakoak.

Lurzoru Publikoaren Foru Bankuan sartuko dira ondare hori osatzen duten ondasunen kudeaketa eta besterentzearen bidez eskuratutako diru-sarrerak.”

## 5. 236. artikulua 2. apartatua aldatzen da:

“2. Lurzoru Publikoaren Foru Bankuan, foru lege honen 55.6 artikuluan aurreikusitako udalez gaindiko zuzkiduraren kontzeptuan, sartuta dauden ondasunak errentamendu-araubideko etxebizitza babestuak eraikitzeo baizik ez dira erabiliko, ukatu gabe haien kudeaketa egitea hurrengo artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako bideren bat erabiliz edo 239. artikuluan aurreikusitako azalera eskubidearen formulaz.”

**Azken xedapenetako bosgarrena.** Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzea.

Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen artikulua hauek testu hau izanen dute:

## 1. 68. artikulua 3. apartatua aldatzen da:

“3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko, alde aurreko zenbait baldintza ezarriko dira, onuradunek bete beharrekoak, erregelamendu bidez garatuko direnak, honako printzipio hauetan oinarrituak:

a) Dagokien finantzaketa zatia eta, kasu bada, egiten diren likidazioak alde aurretik egitea.

b) Nekazaritza azpiegituren arloko eskumena duen departamentuaren finantzaketa jaso aurretik, ureztatzaileen elkarten ordenantza eta erregelamenduetan neurriak sartzea ureztatze uraren aprobetxamenduen hartzaileen ur kontsumoak kontrolatzeko; horrekin batera penalizazioak ere aurreikusiko dira, kanpaina bakoitzean departamentu horrek “Riegos de Navarra, Sociedad Anónima” sozietate publikoaren bidez ezarritako erreferentziako ur kontsumoak gainditzeagatik.

c) Ureztatzaileen elkarte onuradunei dokumentu bat eskatuko zaie, haren bidez instalazioak desegoki erabiltzeagatik eta, bereziki, eremu horretarako eta ohiko laboreetarako erreferentziazat jarritakoak baino ur kopuru handiagoak aplikatzeagatik sor litezkeen kalteen erantzukizuna kentzeko nekazaritzako azpiegituren arloko eskumena duen departamentuari.

d) Konpromisoa hartzea kanpainaz kanpaina ureztalur horietan ezarri diren edo ezarri diren laboreei buruzko datuak emateko nekazaritza azpiegituren arloko eskumena duen departamentuari edo haren sozietate publikoei, estatistikak egiteko eta nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzako energiaren industrietako informazio bideak hobetzeko”.

## 2. 71. artikulua 1. apartatua aldatzen da:

“1. Nekazaritza azpiegituretako jardun eremuetan egin beharreko obrak bitarikoak dira: batetik, interes orokorrekoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez egin beharrekoak, artikuluko honen 2. Bigarrena.d) apartatuan zehaztutakoak salbu, horiek toki entitateek egiten baitituzte, eta bestetik, nekazaritza interes pribatuko obrak, interesdunek berek zuzenean egin beharrekoak.”

3. 71. artikulua 2. apartatuko lehen paragrafoa aldatzen da:

“2. Interes orokorreko obrak eremu osorako izanen dira onuragarriak, ustategietatik kanpoko azpiegituretako ekintzak izanen dira, eta honako mota hauek izanen dituzte”

## 4. 73. artikulua 4. apartatua aldatzen da:

“4. Foru lege honetako 71.2. Bigarrena.d) artikuluan aipatzen diren obrak finantzatzeko, herrilurretako barne banaketari buruzkoak, baldintza ezinbestekoa izanen da barne banaketa hori presiopeko sareen bidez egitea, eta hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gehienez 100eko 75 finantzatuko du, eta kasuko toki entitateak edo parekatuak gainerakoa, teknikaren egotzaren arabera ezartzen ahal diren erreferentziako kostuen gainean kalkulatu. Horrez gain, toki entitateak hamabost urtez eutsi beharko dio bere hartan loteen tamainari; ez da zilegi izanen loteak oinarritzko ureztatze-azalera baino txikiagoak izatea, eta adjudikaziorako baldintzak foru lege honetako 40.5 artikuluan esaten denaren araberekoak izanen dira. 100eko 75eko gehieneko dirulaguntza hartzeko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

100eko 50eko oinarritzko dirulaguntza erregelamenduz garatuko da. 100eko 25eko dirulaguntza osagarria lortzeko baldintzak erregelamenduz garatuko dira; oinarria izanen da saritzea herrilurren adjudikazio-hartzaile direnek Nafarroako Ustategien Erregistroaren arabera dituzten ezauzgarriak, eta saritzea, halaber, zer prestakuntza duten ureztatzearekin zerikusia duten gaietan eta zer kontrol beren ur kontsumoen gainean. Hala egin dela egiaztatu ondoren, erregelamenduz ezarritako baldintzei jarraikiz, 100eko 25 hori ordainduko da”.

**Azken xedapenetako seigarrena.** Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina onesten duen otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea.

## 12. artikulua testu hau izanen du:

“1. Titulu honetan aipatzen diren onurak jasotzen ahalko dira nekazaritzako edo abeltzaintzako ondasunetan izandako galerengatik, baldin eta arriskuak sartuta ez badaude Nafarroan aplikatzekoak diren Nekazaritzako Aseguruen planetan, eta Nafarroako Gobernuak berariaz deklaritzen badu arrisku horiek babesgarriak direla legegintzako foru dekretu honen ondorioetarako.

2. Kalte horiei aurre egiteko ezarritako laguntzen araubidearen onuradunentzat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egiten dituen ekarpenak nekazariari ordainduko zaizkie zuzenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Lege Orokorraren 17.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, non dirulaguntzak emateko prozedura finkatzen baita”.

**Azken xedapenetako zazpigarrena.** Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen honako artikulua hauek testu hau izanen dute:

1. 2. artikulua aldatzen da:

“2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honetako xedapenak aplikatuko zaizkie honako baldintza hau betetzen duten familia guztiei: beren kideek eskabide-aurkezpenaren egunera arteko aldia Nafarroako Foru Komunitateko egiazko egoiliar gisa igaro izana, etenik gabeko urte erdiz, gutxienez ere.”

2. 12. artikulua aldatzen da:

“12. artikulua. Neurri fiskalak.

Familia gurasobakarrak edo gurasobakartasun-egoeran daudenek araudi fiskalak familia ugariei aitortzen dien tratamendu bera izanen dute, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat Nafarroako Foru Komunitatearen arau-eskumenekoak diren tributuen kasuan.”

**Azken xedapenetako zortzigarrena.** Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legea aldatzea.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legearen artikulua hauek testu hau izanen dute:

1. 39. artikuluko e) letra aldatzen da:

“e) Enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendu egokiak eta kontsumitzaileen babesa bermatzeko nahitaez bete

behar diren dokumentazio eta informazio arauak ez betetzea.”

2. 39. artikuluko r) letra gehitzen zaio:

“r) Ez betetzea posta helbideari, telefono zenbakiari eta posta elektronikoko helbideari buruzko informazioa euskarri iraunkorrean kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura jartzeko betebeharra, beren kexak eta erreklamazioak egin ditzaten; horien berri idatziz jaso beharko da, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan; horrekin batera, ez betetzea erreklamazioak aurkeztu eta hilabete epean gehienez ere haiei erantzuteko betebeharra.”

3. 40. artikulua aldatzen da:

“1. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteak arinak izanen dira, salbu eta astun edo oso astuntzat hartu behar badira, artikulua honetan ezarritakoarekin bat.

2. Arau-hausteak astuntzat hartuko dira irizpide hauetako bat tartean denean, eta oso astunak izanen dira, berriz, bi irizpide edo gehiago daudenean:

a) Kontsumitzaileen osasunaren edo segurtasunaren kontrako kalte edo arrisku larria.

b) Kontsumitzaileen interes ekonomikoen kalte larria.

c) Zabarkeria larria edo doloa.

d) Arau-hauste orokortua, ukitutako hartzaileen kopuruari dagokionez.”

4. 42. artikuluko 2. apartatua aldatzen da:

“2. Zehapenek dakartzaten isunen zenbatekoa zehaztean kontuan hartuko dira inguruabar hauek:

a) Kontsumitzaileei eragindako kalteak edo galerak.

b) Produktu edo zerbitzuaren hartzaileen ahultasun gradua.

c) Legez kontra lortutako onuraren zenbatekoa.

d) Arau-hausleak merkatuan duen posizioa.

e) Gizartean eragindako nahastea.

f) Arau-haustean berrerori edo errepikatu izana.

g) Arau-hauslearen salmenta kopurua.”

**Azken xedapenetako bederatzigarrena.** Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina aldatzen da,

ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 7.x) artikulua testu hau izanen du:

“x) Sozietateek beren langileei ordaindutako lan-etekinak, ohiz kanpokoak edo gehigarriak, zeinak bideratzen baitira zerbitzuak ematen dituzten enpresaren –edo, Merkataritza Kodearen 42. artikulua zentzuan, taldeko edozein sozietateren– kapital sozialean partaidetzak eskuratzeraz edo harpidetzeraz, urtean 20.000 euroko mugarekin, baldin eta:

Lehena. Etekin ohiz kanpokoen edo gehigarrien zenbatekoa idatziz jasota egotea.

Bigarrena. Langileak eta eskuratutako partaidetzak betetzea 62.11 artikuluan jasotako kenkaria egiteko ezarritako baldintzak.

Hirugarrena. Partaidetzak hilabeteko epean eskuratu eta ordaintzea eskuratzeko etekinak jasotzen direnetik.

Artikulu honetan ezartzen diren baldintzak ez betetzeak ekarriko dio subjektu pasiboari bere tributuko egoera erregularizatzeko betebeharra, 83.4 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

Salbuespen honen aplikazioa bateraezina da 62.11 artikuluan jasotako kenkariarekin, salbuespenaren zenbatekoei dagokienez”.

**Azken xedapenetako hamargarrena.** Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea.

Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeari xedapen iragankor bat gehitzen zaio, testu hau izanen duena:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea

2020ko uztailaren 31 arte, edo foru lege honen aldaketak indarra hartu arte, lehenago gertatzen bada, ez da onartuko baimen eskaerarik joko edo bingorako areto edo apustuatarako berariazko lokal berriak jartzeko.

Era berean, ez da eskaerarik onartuko baime-naren bideragarritasunari buruzko alde aurreko kontsultak egiteko, ez eta Joko makinaren Erregelamendua onesten duen uztailaren 31ko 181/1990 Foru Dekretuaren 10. artikuluan aipatzen diren lokaletan joko makinak eta apustuaren makina lagungarriak jartzeko ere.”

**Azken xedapenetako hamaikagarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA  
 Hezkuntza mailetako moduluak eta ratioak, 2020ko urtarrietik abendura bitarteko aldirako

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN LANSARIAK	MODULU A %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULU A %	MODULUA, GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,217	0,000	45.968,93	0,74	5.951,66	0,10	10.498,84	0,17	62.419,43
LEHEN HEZKUNTZA	1,391	0,000	52.535,91	0,73	8.514,05	0,12	11.128,88	0,15	72.178,84
DBHko LEHEN ETA BIGARREN MAILAK	1,652	0,000	65.983,11	0,75	8.576,70	0,10	13.190,62	0,15	87.750,43
DBHko HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILAK	1,728	0,000	74.993,62	0,75	10.766,26	0,11	14.806,05	0,15	100.565,93
DBH 2. ETA 3. MAILAK, IEHP	1,391	0,000	60.372,22	0,72	8.569,36	0,10	14.806,05	0,18	83.747,63
DBH CURRICULUM EGOKITUAREN PROGRAMA	0,957	0,652	67.398,51	0,73	10.322,33	0,11	14.806,05	0,16	92.526,89
BATXILERGOA	1,652	0,000	69.196,12	0,72	11.771,35	0,12	14.806,05	0,15	95.773,52

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN LANSARIAK	MODULUA %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULUA %	LANGILE OSAGARRIAK	MODULUA %	MODULUA, GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
OINARRIZKO HEZK. BEREZIA. PSIKIKOAK	1,087	0,000	41.043,69	0,45	5.068,74	0,06	11.128,88	0,12	34.829,21	0,38	92.070,52
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA. AUTISTAK	1,087	0,000	41.043,69	0,48	5.068,74	0,06	11.128,88	0,13	27.654,20	0,33	84.895,51
OINARRIZKO HEZK. BEREZIA. URRITASUN ANITZEKOAK	1,087	0,000	41.043,69	0,42	5.068,74	0,05	11.128,88	0,11	40.829,66	0,42	98.070,97
HLKPB	1,087	1,087	84.197,99	0,52	12.985,34	0,08	14.806,05	0,09	50.834,14	0,31	162.823,52
HBP	0,696	0,391	41.803,52	0,48	5.819,69	0,07	11.128,88	0,13	27.654,20	0,32	86.406,29
Oinarritzko Hezk. Berezia Psik. DBHko unit. espezifikoa	1,391	0,000	52.535,91	0,76	5.054,91	0,07	11.128,88	0,16			68.719,70

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN LANSARIAK	MODULUA %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULUA %	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1- EMHZ, KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA (HLO)	1. maila	0,478	1,087	63.907,35	0,68	10.029,63	0,11	19.498,77	0,21	93.435,75
	2. maila	0,826	0,568	58.394,27	0,67	9.008,80	0,10	19.498,77	0,22	86.901,84
2- EMHZ, ERIZANTZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	1. maila	0,435	1,304	70.651,52	0,70	11.254,96	0,11	18.997,42	0,19	100.903,90
	2. maila	0,261	0,000	11.319,79	0,69	1.621,86	0,10	3.412,83	0,21	16.354,48
3- EMHZ, SOLDADURA ETA GALTARAGINTZA (HLO)	1. maila	0,348	1,522	75.509,10	0,63	11.869,39	0,10	32.284,67	0,27	119.663,16
	2. maila	0,913	0,609	63.786,00	0,60	9.788,06	0,09	32.284,67	0,30	105.858,73
4- EMHZ, AURREINPRIMAKETA DIGITALA (HLO)	1. maila	0,609	1,043	67.841,48	0,64	10.587,44	0,10	27.802,51	0,26	106.231,43
	2. maila	0,652	0,739	57.644,77	0,61	8.996,13	0,10	27.802,51	0,29	94.443,41
5- EMHZ, INPRIMAKETA GRAFIKOA (HLO)	1. maila	0,696	0,957	68.201,11	0,63	10.770,00	0,10	29.793,32	0,27	108.764,43
	2. maila	0,653	0,783	59.426,44	0,60	9.384,36	0,10	29.793,32	0,30	98.604,12
6- ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA	1. maila	0,826	1,000	75.547,98	0,66	11.810,79	0,10	27.897,32	0,24	115.256,09
	2. maila	0,565	1,000	64.228,21	0,63	10.188,97	0,10	27.897,32	0,27	102.314,50
7- EMHZ, FARMAZIA ETA PARAFARMAZIA (HLO)	1. maila	0,652	0,913	64.549,22	0,70	10.038,49	0,11	17.787,91	0,19	92.375,62
	2. maila	0,652	0,717	56.781,45	0,68	8.851,51	0,11	17.787,91	0,21	83.420,87
8- EMHZ, INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (HLO)	1. maila	0,696	1,000	69.888,02	0,64	10.832,01	0,10	28.086,90	0,26	108.806,93
	2. maila	0,652	0,870	62.823,26	0,62	9.774,72	0,10	28.086,90	0,28	100.684,88
9- EMHZ, MEKANIZAZIOA (HLO)	1. maila	0,522	1,391	77.877,13	0,66	12.331,81	0,10	28.225,93	0,24	118.434,87
	2. maila	0,696	0,826	62.983,41	0,62	9.927,38	0,10	28.225,93	0,28	101.136,72
10. EMHZ, MERKATARITZA JARDUERAK	1. maila	0,870	0,870	72.297,65	0,70	11.416,90	0,11	19.395,58	0,19	103.110,13
	2. maila	1,044	0,479	64.323,88	0,69	10.157,72	0,11	19.395,58	0,21	93.877,18
11- EMHZ, MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA (HLO)	1. maila	0,739	0,826	64.870,43	0,69	10.123,77	0,11	18.997,42	0,20	93.991,62
	2. maila	0,739	0,696	59.691,85	0,68	9.315,59	0,11	18.997,42	0,22	88.004,86
12.- HONDEAKETAK ETA ZUNDAKETAK	1. maila	1,000	0,827	76.231,79	0,63	12.038,17	0,10	32.608,78	0,27	120.878,74
	2. maila	0,740	0,783	63.201,87	0,60	9.980,55	0,09	32.608,78	0,31	105.791,20
13.- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK	1. maila	0,740	1,305	83.927,85	0,72	13.253,50	0,11	19.594,65	0,17	116.776,00
	2. maila	1,175	0,261	61.353,06	0,68	9.688,59	0,11	19.594,65	0,22	90.636,30

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKASMAI LA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN LANSARIAK	MODULUA %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULUA %	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARR A	AGREGATU A							
1.- GMHZ, NAZIOARTEKO MERKATARITZA	1. maila	1,174	0,348	64.748,45	0,70	9.951,39	0,11	17.859,79	0,19	92.559,63
	2. maila	1,217	0,217	61.456,55	0,69	9.417,31	0,11	17.859,79	0,20	88.733,65
2.- GMHZ, ELEKTRONIKAKO MANTENTZE- LANAK	1. maila	1,435	0,261	72.616,04	0,67	11.332,56	0,10	24.844,73	0,23	108.793,33
	2. maila	0,870	0,717	66.214,84	0,65	10.333,58	0,10	24.844,73	0,25	101.393,15
3. GMHZ, ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	1. maila	0,870	0,522	59.446,71	0,68	9.131,70	0,11	18.855,22	0,22	86.433,63
	2. maila	1,348	0,130	63.664,51	0,69	9.692,04	0,11	18.855,22	0,20	92.211,77
4.- GMHZ, HAUR HEZKUNTZA (HLO)	1. maila	0,913	0,739	68.964,36	0,71	10.579,34	0,11	17.916,66	0,18	97.460,36
	2. maila	1,087	0,261	57.523,09	0,68	8.741,94	0,10	17.916,66	0,21	84.181,69
5.- GMHZ, MERKATINA ETA PUBLIZITATEA	1. maila	1,174	0,565	73.379,27	0,71	10.966,37	0,11	18.712,99	0,18	103.058,63
	2. maila	1,130	0,391	64.587,95	0,69	9.677,81	0,10	18.712,99	0,20	92.978,75
6.- GMHZ, SALMENTEN ETA MERKATARITZAKO GUNEEN KUDEAKETA (HLO)	1. maila	1,174	0,566	73.419,67	0,71	11.594,09	0,11	18.712,99	0,18	103.726,75
	2. maila	1,131	0,479	68.099,31	0,70	10.753,93	0,11	18.712,99	0,19	97.566,23
7.- GMHZ, SAREKO SISTEMA INFORMATIKOEN ADMINISTRAZIOA (HLO)	1. maila	1,217	0,652	78.718,47	0,71	11.913,75	0,11	19.594,65	0,18	110.226,87
	2. maila	1,304	0,329	69.653,36	0,70	10.484,00	0,11	19.594,65	0,20	99.732,01
8.- GMHZ, AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA	1. maila	0,870	1,043	79.161,29	0,70	12.354,02	0,11	22.171,35	0,20	113.686,66
	2. maila	1,348	0,261	68.842,78	0,68	10.743,69	0,11	22.130,29	0,22	101.716,76
9.- GMHZ, FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA	1. maila	0,696	1,043	71.614,76	0,66	11.095,82	0,10	25.223,91	0,23	107.934,49
	2. maila	1,304	0,304	68.682,35	0,66	10.335,65	0,10	25.223,91	0,24	104.241,91
10.- GMHZ, GARRAIOA ETA LOGISTIKA (HLO)	1. maila	0,783	0,696	61.578,15	0,69	9.663,59	0,11	17.859,79	0,20	89.101,53
	2. maila	1,130	0,304	61.135,65	0,69	9.258,18	0,10	17.859,79	0,20	88.253,62
10.- GMHZ, GARRAIOA ETA LOGISTIKA ONLINE (HLO)	1. maila	0,391	0,522	37.693,77	0,69	5.812,17	0,11	10.768,92	0,20	54.274,86
	2. maila	0,609	0,261	36.769,89	0,69	5.669,72	0,11	10.768,92	0,20	53.208,53
	3. maila	0,652	0,217	36.930,35	0,69	5.694,45	0,11	10.768,92	0,20	53.393,72
	4. maila	0,261		11.319,79	0,69	1.621,86	0,10	3.412,83	0,21	16.354,48
11.- GMHZ, PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA	1. maila	1,348	0,435	75.614,19	0,71	11.593,26	0,11	18.997,42	0,18	106.204,87
	2. maila	1,130	0,435	66.363,51	0,69	10.222,67	0,11	18.997,42	0,20	95.583,60
12.- GMHZ, ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITODIAGNOSTIKOA (HLO)	1. maila	1,261	0,435	71.974,00	0,69	10.726,07	0,10	21.090,61	0,20	103.790,68
	2. maila	1,130	0,391	64.587,95	0,68	9.677,81	0,10	21.090,61	0,22	95.356,37
13.- EKOIZPEN GRAFIKOAREN DISEINUA ETA KUDEAKETA	1. maila	0,391	1,348	70.491,07	0,64	11.252,79	0,10	27.688,73	0,25	109.432,59
	2. maila	1,130	0,478	68.040,32	0,64	10.485,43	0,10	27.688,73	0,26	106.214,48
14.- GMHZ, FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA (HLO)	1. maila	0,783	0,913	70.209,13	0,66	10.836,45	0,10	24.541,37	0,23	105.586,95
	2. maila	1,522	0,090	69.592,60	0,67	10.363,29	0,10	24.541,37	0,23	104.497,26
15.- GMHZ, GIZARTERATZEA	1. maila	1,131	0,609	73.260,95	0,71	11.569,03	0,11	17.916,66	0,17	102.746,64
	2. maila	0,870	0,609	61.934,65	0,69	9.780,43	0,11	17.916,66	0,20	89.631,74



## OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN LANSARIAK	MODULUA %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
MERKATARITZA ZERBITZUAK	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,66	9.383,85	0,12	17.813,69	0,22	80.993,77
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,66	9.383,85	0,12	17.813,69	0,22	80.993,77
ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,66	9.383,85	0,12	18.384,51	0,23	81.564,59
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,66	9.383,85	0,12	18.384,51	0,23	81.564,59
BULEGO-INFORMATIKA	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,66	9.383,85	0,12	18.384,51	0,23	81.564,59
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,66	9.383,85	0,12	18.384,51	0,23	81.564,59
ARTE GRAFIKOAK	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,63	9.383,85	0,11	22.603,94	0,26	85.784,02
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,63	9.383,85	0,11	22.603,94	0,26	85.784,02
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,63	9.383,85	0,11	22.863,19	0,27	86.043,27
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,63	9.383,85	0,11	22.863,19	0,27	86.043,27
METALEZKO ELEMENTUEN FABRIKAZIOA	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,62	9.383,85	0,11	23.059,36	0,27	86.239,44
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,62	9.383,85	0,11	23.059,36	0,27	86.239,44
FABRIKAZIOA ETA MUNTAKETA	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,62	9.383,85	0,11	23.059,36	0,27	86.239,44
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,62	9.383,85	0,11	23.059,36	0,27	86.239,44
ERAIKINEN ZAHARBERRITZE- ETA MANTENTZE-LANAK	1. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,61	9.383,85	0,11	25.487,68	0,29	88.667,76
	2. maila	0,522	0,783	53.796,23	0,61	9.383,85	0,11	25.487,68	0,29	88.667,76

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle titularren ratioak astean zuzeneko 23 irakastorduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu dira.

Bigarren Hezkuntzako irakasle titularren eta irakasle agregatuen ratioak astean 23 eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu dira.

GASTUAREN AZALPENA	1 Langleria gastuak	2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	3 Finantza gastuak	4 Transferentzia arruntak	5 Kontingentzia funtsa	6 Inbertsio errealak	7 Kapital transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
P Nafarroako Parlamentua				17.587.228			979.205			18.566.433
0 Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Dep.	248.152.695	18.364.652		22.381.092		7.752.918	100.010	19.730.340		316.481.707
1 Ekonomia eta Ogasun Dep.	25.578.948	18.142.824	68.546.940	600.898.230	3.938.248	4.596.485	20	6.630.020	288.403.334	1.016.735.049
2 Lurralde Kohesiorako Dep.	11.157.083	73.612.440	110	263.900.280		56.433.888	17.870.030	33.235		423.007.066
3 Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Dep.	4.204.097	2.262.468		16.637.882		475.670	26.871.188			50.451.305
4 Hezkuntza Dep.	450.187.516	40.322.758		158.412.739		17.814.522	13.104.853			679.842.388
5 Osasun Dep.	599.605.165	364.289.316	10	160.725.031		35.100.921	2.554.842	31.274		1.162.306.559
7 Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Dep.	24.231.088	17.884.931	10	44.288.329		9.291.372	34.086.325			129.762.055
8 Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Dep.	9.218.240	8.983.248		12.519.565		2.714.741	49.326.643	900.000		83.662.437
9 Eskubide Sozialetako Dep.	40.584.124	137.919.685	10	253.527.900		4.336.810	1.272.000			437.640.529
A Kultura eta Kirol Dep.	14.382.681	8.830.032		20.365.850		4.108.850	2.931.580			50.618.993
B Herriarrikiko Harremanetako Dep.	5.317.228	3.067.246		4.418.560		1.243.402	92.000			14.138.436
F Migrazio Politiketako eta Justiziako Dep.	25.956.058	4.836.638		5.113.040		1.256.850				37.162.586
G Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Dep.	7.195.777	29.022.866	6.533	78.471.655		3.869.940	16.161.000	1.501.802		136.229.573
C Nafarroako Kontseilua				425.382			28.000			453.382
<b>AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>1.465.770.700</b>	<b>727.539.104</b>	<b>68.553.613</b>	<b>1.659.652.763</b>	<b>3.938.248</b>	<b>148.996.369</b>	<b>165.377.696</b>	<b>27.293.595</b>	<b>289.936.410</b>	<b>4.557.058.498</b>

DIRU-SARRERAREN AZALPENA	1 Zuzeneko zergak	2 Zeharkako zergak	3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	4 Transferentzia aruntak	5 Ondare diru-sarrerak	6 Inbertsio errealen besterentzea	7 Kapital transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
0 Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Dep.			5.910.300	1.238.088				19.163.908		<b>26.312.296</b>
1 Ekonomia eta Ogasun Dep.	1.996.954.000	1.999.007.000	30.888.290	90.030	5.888.390	28.020	10	31.036.773	316.325.334	<b>4.380.217.847</b>
2 Lurralde Kohesiorako Dep.			1.642.570	10	44.876	20	250.010	10		<b>1.937.496</b>
3 Lurralde Antolamenduko, Ekebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Dep.			193.010	30.826	57.000	70.000		98.000		<b>448.836</b>
4 Hezkuntza Dep.			2.019.110	769.136	41.182		2.518.830			<b>5.348.258</b>
5 Osasun Dep.			10.508.220	32.030	321.501		40			<b>10.861.791</b>
7 Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Dep.			2.504.910	8.535.580	663		12.530.070	26.242		<b>23.597.465</b>
8 Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako Dep.			1.866.783	498.699	70.000	100.000	11.296.222	187.510		<b>14.019.214</b>
9 Eskubide Sozialetako Dep.			49.279.728	43.558.427						<b>92.838.155</b>
A Kultura eta Kirol Dep.			820.550	315.040	149.530					<b>1.285.120</b>
B Herriarrekiko Harremanetako Dep.			7.110	40						<b>7.150</b>
F Migrazio Politiketako eta Justiziako Dep.			46.500	10						<b>46.510</b>
G Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalako Dep.			100.010	5.010				33.340		<b>138.360</b>
<b>AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>1.996.954.000</b>	<b>1.999.007.000</b>	<b>105.787.091</b>	<b>55.072.926</b>	<b>6.573.142</b>	<b>198.040</b>	<b>26.595.182</b>	<b>50.545.783</b>	<b>316.325.334</b>	<b>4.557.058.498</b>



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itxarotzerrenden sistema garden bat eta mendekotasuna baloratzeko nahiz gizarte zerbitzu orokorren zorroan bermatzen diren prestazio bakoitzerako erantzun bat emateko ustez beharko den denbora ezar ditzan.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita itxarotzerrenden sistema garden bat eta mendekotasuna baloratzeko nahiz gizarte zerbitzu orokorren zorroan bermatzen diren prestazio bakoitzerako erantzun bat emateko ustez beharko den denbora ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioen eledunek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Dudarik gabe, gizarte bezala daukagun erronkarik handienetako bat da biztanleriaren zahartzea eta ororentzako bizi-kalitate egoki bat lortzea, zein ere den norberaren autonomia-maila. Aipatu-

tako bizi kalitatea oinarrituta egonen da giza eskubideetan, duintasunean eta hurbileko zerbitzuen abiarazpenean, zahartzeaz arduratzeko eta, bereziki, horren eskutik datorkeen mendekotasun-egoera artatzeko.

2006an, Estatuko gobernuak adostasun-maila handiz onetsi zuen abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzkoa. Lege horrek aitortzen du, lehenbiziko aldiz Espainian, berez ezin balia daitezkeen pertsonak eskubide subjektiboa dutela botere publikoek artatuak izateko. Eskubide unibertsal bat da hori, berme publikoa duena.

Eskubide horri edukia emateko, ukitutako administrazio guztien lankidetzaz ezartzen zen, eta Autonomiaren eta Mendekotasunerako Laguntzaren Sistema bat sortzen zen, mailaz mailako ezarpen-egutegi batekin. Aurreikusitakoaren arabera ezartzen joan zen sistema hori, harik eta Alderdi Popularrak 2011ko azaroan gobernura iritsi zen arte.

Alderdi Popularrak lege hori kudeatu zuen moduak sortutako egoera dela eta, autonomia erkidegoek ia-ia bakarka aurre egin behar izan diote planteaturiko sistemaren finantzaketari eta ezarpenari.

Nafarroan, mendekotasunaren artatzea ez da UPNren gobernuen lehentasun bat izan, eta legearen hedapena akastuna izan da hasieratik.

Aurreko legegintzaldian, gobernuak hasierako mendekotasun-baloraziorako itxarote-zerrendak murrizteko lanabesak paratu zituen, eta hala Nafarroa kokatu zen baloraziorako eta kasuko prestazioaren esleipenerako denborarik laburrena

behar duten erkidegoen artean. Alabaina, ia ez zen aurrerapausorik eman hurbileko zerbitzuak eta autonomia-sustapena artatzeko zerbitzuak sortzeko bidean.

Gainera, Nafarroak segitzen du erkidego bat izaten zeinean prestazio ekonomikoek zerbitzuen oso gaineratik egoten segitzen baitute, eta Espainiako Gobernuarengandik finantzaketarik gutxien jasotzen duten erkidegoetako bat da.

Joan den abenduan, nabarmenki hobetu da Nafarroan mendekotasuna dutenek mendekotasunaren balorazio eta zerbitzuetarako sisteman sarbidea izateko modua. Harrezkero, mendekoek eta haien familiek modua daukate izapide guztiak oinarritzeko osasun laguntzako zentroen bidez ere egiteko, eta horrek hobetu egiten du arreta, eskuragarriago jarri eta azkarrago ematen baita.

Halere, aurrerapausoak eman behar dira gardentasuna handiagoa izan dadin bai mendekotasun-balorazioaren prozesuan, bai balorazioak proposatzen duen baliabidea pertsona bakoitzari esleitzeko espedientearen egoeran edo baliabide bakoitzean eskuragarritasun- nahiz eskuraezintasun-egoeran ere. Kasu askotan, informaziorik ezak egonezin gehigarri bat sortzen du, mendekotasun-egoera batek berez norbanakoari eta familiarari sortzen dion egonezinari gehitzen zaiona.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sistema garden bat ezar dezan, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez, mendekotasuna baloratzeko dauden itxarote-zerrendetarako eta balorazio horiek egite-

ko kalkulatuak denborarako, bai eta gizarte-zerbitzuen zorro orokorreko prestazio bermatu bakoitzerako ere.

Halaber, baliabide bakoitzean eskuragarri dauden postuak eta postu hutsak esleitzeko irizpideak agertuko dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mendekotasuna artatzeko plan bat egin dezan, lehenetsuzko lanildoak ezarri eta gaur egun beharrezkoak diren baina, batik bat, etorkizunean beharrezkoak izanen diren zerbitzuak sortzeko plangintza bat egin, gure erkidegoko eskualde bakoitzaren ezauzgarriak aintzat harturik.

Plan horretan honako printzipio hauei jarraituko zaie:

– Lehenetsuna zerbitzuei ematea, ezen ez horiei loturiko diru-prestazioei.

– Enplegu egonkorra sortu eta kalitatezko arretak bermatzen dituzten zerbitzu-zentroen sarea indartzea.

– Hurbiltasuneko zerbitzuak indartzea, horietan ahalbidetzen baitute ukitutako pertsonen etxebizitzan jarrai dezaten eta zaintzaileen laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitea.

– Berrikuntza sozialeko neurriak sustatzea.

Plan hori egiten parte hartuko dute bai gizarte-eragileek, bai desgaitasunaren eta mendekotasunaren alorretako elkarteek.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Isabel Aranburu Bergua eta Mikel Buil García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tren-txartelak saltzeko leihatilen itxierak ukitutako udalekin batera lan egin dezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek ADIFi nahiz Renferi egindako eskariak bideratzeko.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tren-txartelak saltzeko leihatilen itxierak ukitutako udalekin batera lan egin dezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek ADIFi nahiz Renferi egindako eskariak bideratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iragan urtarrilaren 1etik Castejongo, Tafallako eta Altsasuko tren-geltokiei eragiten die ADIFek eta RENFEk bidaia-txartelen leihatilak ixteko hartutako erabakiak, zeina hala moduzko argudioekin hartu baita.

Erabakia gutun bidez jakinarazi zitzaizen ukitutako herri horietako udalei urtea bukatu baino egun gutxi batzuk lehenago, egun zinez desegokietan, erabakia ekidin ahal izateko tarterik utzi gabe, halako moduan non udal horiek ez baitute inolako aukerarik izan erabakia ekiditeko.

Ez gaude erabaki horrekin ados, eta errefusatu egiten dugu kalitatezko zerbitzu publiko bat emateari begira, enplegua mantentzeari begira, tren konbentzionalaren defentsari begira eta despopulazioari begira dakartzan ondorioengatik.

Ukitutako hiru herri horietako alkateek ere beste horrenbeste adierazi dute denek batera.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du itxiera horrek ukitutako herrietako udalekin batera lan egin dezan konponbide bat aurkitzeko eta horiek ADIFi nahiz RENFERi egindako eskariak bideratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak RENFERi exigitzen dio lehenbailehen berrezar dezan hiru geltokietan tren-txartelak aurrez aurre saltzeko zerbitzua.

3. Nafarroako Parlamentuak lagundu egingen die ukitutako udalei, leihatilak ixteko erabakiaren aurka nahiz enplegua arriskuan jartzen duen eta despopulazioa ahalbidetzen duen neurri ororen aurka proposatzen dituzten ekimenetan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikulua 3. eta 4. apartatueta xedatutakoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikulua 3. eta 4. apartatueta xedatutakoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kidea den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Hirugarren sektorea osatzen duten entitateak funtsezkoak dira gure erkidegoaren garapenerako. Administrazioa iristen ez den lekuetara iristen dira, eta Administrazioak eskaintzen ez duena eskaintzen dute; izan ere, Administrazioa ez dago pertsonen errealitateari hain lotua. Zerbitzu publikoen eta hirugarren sektoreak eskaintutako zerbitzuen arteko bizikidetzak egoki bat funtsezkoa da, hortaz, pertsonen zuzendutako politiken kalitateari begira.

Horrenbestez, funtsezkoa da horien jardueren finantzaketa egoki bat –ikuspuntua ekonomikotik ez ezik dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko epean ikuspuntutik ere–, hirugarren sektore indartsu eta osasuntsu bat lortzeko eta, hortaz, nafar herritarrekiko jarduna hobetzeko.

Urte asko eman dira helburu hori lortzeko ekimenak burutzen, baina, arrazoiak arrazoi, hori guztia ez da aski izan.

Halatan, Nafarroako Parlamentuak Dirulaguntzei buruzko Foru Legea aldatu zuen 2014an. Horren arabera, dirulaguntzak emateari buruzko ebazpenak apirilaren 30erako egon beharko lirarteke beti, salbu eta ekonomiaren arloaz arduratzen den Nafarroako Parlamentuko batzordearen aurrean urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen justifikatu beharreko kasuetan eta, gehienez ere eta inolako salbuespenik gabe, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, baldin eta onuradunak gizarte-ekintzako entitateak badira.

Baldintza hori, zeina foru lege horren 17. artikuluan jasotzen baita, sistematikoki urratzen ari da, eta horrek kalte egiten dio hirugarren sektoreko entitateen bideragarritasunari.

Bestalde, entitate horiek aspaldiko erreibindikazio bat da –bereziki osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloan– urte anitzeko finantzaketa lortzea modu egonkor batean egiten dituzten programetarako eta urtez urte dirulaguntza izendun bat dutenetarako, halako moduan non ekidin eginen baitira urteko lehen urteetako finantzaketarako, kasuan kasuko hitzarmenak eta dirulaguntza emateko ebazpenak sinatu arte.

Azkenik, eta hirugarren sektorearentzako dirulaguntzetarako zenbatekoak hobetzeko xedez, Espainian beste inon gertatzen ez den eta gure entitateen kalterako den egoera bat zuzendu beharra dago. PFEZaren aitorpena egitean, zergadunen esku dago beren aitorpenean kuota osoaren ehuneko 0,7 bideratzea Eliza katolikoaren sostengu ekonomikoan laguntzera edo/eta gizarte intereseko beste xede batzuetara. Nafarroan, bi laukitxo horiek markatzea erabakitzen baldin bada, Estatuko gainontzeko lurraldeetan gertatzen ez den bezala, kuota osoaren ehuneko 0,7 bitan zatitzen da, halako moduan non zati horietako bat –horren erdia, % 0,35 alegia– Eliza katolikoaren sostengu ekonomikorako bideratzen baita eta beste erdia –gainontzeko % 0,35a alegia– Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeen programen bidez gizarte intereseko beste xede batzuetara bideratzen baita.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:



1. Berehala bete dezan Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17. artikulua 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa.

2. Dirulaguntzei buruzko Foru Legea alda dezan, urte anitzeko finantzaketa jaso dezaten Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izendun baten bidez hiru urtez jarraian baino denbora gehiagoz egiten diren programak.

3. % 0,7aren esleipena arautzen duen triburu-araudia alda dezan, halako moduan non, Eliza katolikoaren sostengurako eta gizarte intereseko beste xede batzuetarako laukitxoak markatzen baldin badira, % 0,7 hori ez baita zatituko, eta biei emanen baitzaie % 0,7.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

**Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premia-tzen da indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeke arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premia-tzen baita indartu dezan ospitaleratuta dauden

edo etxeke arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne. Mozioa 2020ko urtarrilaren 10ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00110).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.** 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia onestea, zeina hurrengo atalean jasotzen baita. Hona hemen horren laburpena:

\* Izapidetzeko onartzea (Mahaia eta Eledunen Batzarra): Urtarrilaren 10ean.

\* Proiektua argitaratzea: Urtarrilaren 14an.

\* Zuzenketak taxutzeko programari buruzko bilera: urtarrilaren 15ean, 11:30ean.

\* Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen lan-bilkura: urtarrilaren 15ean, 15:15ean.

\* Osoko zuzenketak aurkezteko epemuga: urtarrilaren 22an, 12:00etan.

\* Osoko zuzenketak onartzea: urtarrilaren 22an, 13:30ean.

\* Osoko zuzenketak argitaratzea: urtarrilaren 23an.

\* Zuzenketa partzialak aurkezteko epemuga: urtarrilaren 28an, 12:00etan.

\* Zuzenketa partzialak ordenatzea: urtarrilaren 28an, 17:00etan.

\* Gobernua: urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra.

\* Osoko zuzenketak eztabaidatzeko Osoko Bilkura: otsailaren 6an, 09:15ean.

\* Zuzenketa partzialak onartzea: otsailaren 4an.

\* Artikuluei eta aurrekontuko partidei aurkezturiko zuzenketak argitaratzea: otsailaren 5ean.

\* Errekurtsoa jartzeko epemuga: otsailaren 7an, 14:30ean.

\* Eledunen Batzarrak errekurtsoa ebazteko: otsailaren 10ean.

\* Batzordeko eztabaida: otsailaren 10etik 18ra.

\* Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epemuga: otsailaren 21ean, 12:00etan.

\* Legebiltzarreko Mahaia, eutsitako zuzenketen eta boto partikularren berri izan duela adierazteko: otsailaren 24an.

\* Irizpena argitaratzea, zuzenketa eta boto partikularrekin batera: otsailaren 25ean.

\* Osoko Bilkura: otsailaren 27an.

**Bigarrena.** 1. 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua urtarrilaren 14ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, osoko zuzenketak aurkezteko epea urtarrilaren 22an bukatuko da, 12:00etan, eta artikuluen eta partiden zuzenketak aurkezteko epea, urtarrilaren 28an, 12:00etan.

2. Zuzenketak aurkezteko epe horren barruan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen lan-bilkura deituko da, urtarrilaren 15erako, 15:15ean. Bertan Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak parte hartuko du, egoki deritzen zuzendari nagusi eta teknikariek batera.

3. Osoko zuzenketarik baldin badago, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak izapidetza onartuko ditu, eta Parlamentuko Lehendakari-tzari bidaliko dizkio urtarrilaren 22an. Balizko osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa otsailaren 6ko Osoko Bilkuran egingen da.

4. Urtarrilaren 28an, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak ordenatu egingen ditu artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio gastu-gehikuntza edo diru-sarreraren murrizketa dakarten zuzenketak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan eta horri loturikoetan adierazitako moduan.

5. Otsailaren 4an, Batzordeko Mahaiak zuzenketak onartuko ditu, bai eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak txostena egin duenekoak ere. Ba-

tzordeko Mahaiak zuzenketak izapidera ez onartzeko hartutako erabakiaren kontra errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Eledunen Batzarrari, Erregelamenduko 130.2 eta 155.3 artikuluekin bat. Errekurtsoa aurkezteko epea otsailaren 7ko 14:30ean bukatuko da.

6. Otsailaren 10ean Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak bilera hasiko du, eta haren eztabaidek otsailaren 18an bukatu beharko dute, egun horretan egina egon beharko baitu proiektuari buruzko irizpenak.

7. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea otsailaren 21eko 12:00etan bukatuko da.

8. Otsailaren 24an Legebiltzarreko Mahaiak adieraziko du eutsitako zuzenketa eta boto partikularren berri izan duela, Legebiltzarreko Errege-

lamenduaren 139. artikuluan adierazitako moduan, eta Osoko Bilkurako kideei igorriko dizkie.

9. 2020ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko da 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

**Hirugarrena.** Erabaki hau igortzea talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiko kideei eta Nafarroako Gobernuari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeari buruzko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin adosturik, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua ikusita, Nafarroako Gobernuaren 2020ko urtarrilaren 10eko erabakiaren bidez Legebiltzarrari igorria eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean 2020ko urtarrilaren 10ean sartua, Erregelamenduko 154. eta 156. artikuluekin bat honakoa ERABAKI DA:

**Lehena.** Hurrengo arauak onestea, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua –"proiektua", aurrerantzean– eztabaidatu eta bozkatzekoak.

1. Proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorriko zaio, horrek irizpena eman dezan.

2. Proiektua berehala argitaratuko da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, eta argitaratzearekin batera, epe bat irekiko da, 2020ko urtarrilaren 22ko 12:00etan bukatuko dena, zeinetan talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak nork bere izenean osoko zuzenketak aurkeztu ahal baitituzte. Beste epe bat ere irekiko da, 2020ko urtarrilaren 28ko 12:00etan bukatuko dena, artikuluei eta partidei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, 3. arauan xedaturikoa aintzat hartuz. Aipatu zuzenketak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiari zuzenduko zaizkio.

3. Zuzenketak honelakoak izan ahal dira:

a) Proiektu osoari aurkeztuak. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko proposatuko dute, eta hari eskatuko diote hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipio batzuetan oinarritutako proiektu bat prestatzeko.

Departamentu baten edo Programa eta Ekonomia Korrelazioa izenekoan ageri diren entitateetako baten programa-multzo osoa ukitzen duten

zuzenketak osoko zuzenketa gisa aurkeztu behar-ko dira, proiektua Gobernuari itzultzekoak.

Osoko zuzenketak egiteko, "CrearEnmiendas" Word-eko plantilla erabiliko da. Zuzenketa horiek prestatzean aintzat hartu beharrekoak izanen dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

b) Proiektuaren barruko edozein "programa", "proiektu" zein "partida"ri aurkeztuak.

Aurrekontu-partidei aurkeztekoak diren zuzenketak egiteko, "2020ProyectoPresupuestos.ACCDB" izeneko aplikazio informatikoa erabiliko da. Zuzenketa horiek egiteko, aintzat hartuko dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

c) Proiektuaren edozein artikuluri aurkeztuak.

Osoko zuzenketak egiteko, "CrearEnmiendas" Word-eko plantilla erabiliko da. Zuzenketa horiek prestatzean aintzat hartu beharrekoak izanen dira I. eranskinean jasotako jarraibideak.

4. Kontzepturen batean gastuak gehitzea edo diru-sarrerak gutxitzea dakarten zuzenketek Nafarroako Gobernuaren aurretiazko onespena behar-ko dute izapidetzera onartuak izateko. Hala ere, aipatu onespena ez da derrigorrezkoa izanen aurkeztutako zuzenketak zehazten baldin bada zein diren proiektuan jadanik izendaturiko baliabideak, gastu gehikuntza edo diru-sarreraren gutxitzea finantzatzekoak.

5. Proiektuari aurkeztutako zuzenketek ezin dute inola ere murrizketarik proposatu Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 47. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) eta e) letretan jasotako kreditu zabalgarrietarako aurreikusitako kontsignaziorako, eta horrelako zuzenketarik aurkezten baldin bada, onartu gabe utziko da.

6. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen eta arlo horretaz

arduraten den kontseilariaren arteko lan bilerarako deia eginen du; zuzendari nagusiekin eta egoki iritzitako teknikariek bertaratu daiteke aipatu kontseilaria.

7. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak iritzia emanen du horiek izapidetzera onartzeari buruz, eta batzordeburuak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar direneko Osoko Bilkuraren gai zerrendan sar ditzan.

8. Artikuluei eta partidei zuzenketak aurkezteko epea amaitu ondoren, Batzordeko Mahaiak zuzenketak ordenatuko ditu eta igorriko dizkie Parlamentuko lehendakariari, talde parlamentarioei, foru parlamentarien elkarteari, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko kideei eta Nafarroako Gobernuari. Halaber, Erregelamenduaren 155. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, erabakiko du Gobernuari igortzea gastu-gehikuntza edo diru-sarreraren murrizketa dakarten zuzenketak.

Nafarroako Gobernuak txostena egin beharko du eta lau egun balioduneko epean bidali beharko du. Txostena jaso ondoren, Batzordeko Mahaiak iritzia emanen du Gobernuak txostena egin dueneko zuzenketak izapidetzera onartzeari buruz eta aurkeztutako gainerako zuzenketei buruz.

9. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin dei egitea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen bilerara, kasuko eztabaidari ekiteko.

10. Osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 90. eta 132. artikuluek ezarritakoaren arabera eginen da Osoko Bilkuran.

11. Osoko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea erabaki ez badu, edo osoko zuzenketarik ez bada aurkeztu, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak bilera eginen du, 9. arauarekin bat Legebiltzarreko Lehendakariatzak kasuko deialdian finkaturiko toki, egun eta orduan.

12. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi, Erregelamenduaren 134. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren artikulua eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

13. Ondoren, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira, Erregelamenduaren 134. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: zuzenketak aurkeztu zaizkien diru-sarrerara eta gastu kategorian ezberdinak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez duten guztiak batera eztabaidatu eta bozkatuko dira.

14. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea 2020ko otsailaren 21eko 12:00etan bukatuko da.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 139. artikuluekin bat, Legebiltzarreko Mahaiak erabaki bat hartu beharko du eutsitako zuzenketei eta formalizatutako boto partikularrei buruz, bai eta Osoko Bilkurako kideei igortzeaz ere, horiek eztabaidatu eta bozkatzeko.

15. Osoko Bilkuran irizpenaren osoko eztabaida bakarra eginen da, zeinetan talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, handienetik txikienerako hurrenkeran, 20 minutuko hitz egiteko txanda izanen baitute. Horren ondoren 10 minutuko ihardespentxanda izanen dute lege proiektuaren kontra dauden talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, handienetik txikienerako hurrenkeran. Jarraian, bozketa eginen da.

Bozketa honela eginen da: lehenbizi, artikuluei aurkezturiko zuzenketa eta boto partikularrak bozkatuko dira; talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aurkezturiko guztiak batera bozkatuko dira, salbu eta horietakoren bat bereizita bozkatzeko eskatzen bada. Ondotik, testu artikuluduna bozkatuko da bere osotasunean, salbu eta 2. artikulua, zeina amaieran bozkatuko baita, non eta ez den eskatzen arauen baten bozketa bereizia egitea.

16. Horren ondoren bozkatuko dira zuzenketen edo boto partikularren xede izan diren diru-sarrerara eta gastu kategoriak eta haiei buruzko zuzenketak eta boto partikularrak. Horretarako, zuzenketak eta boto partikularrak onesten ez badira, zuzenketa edo boto partikular horien xede izan diren aurrekontu-lerroak onetsizat emanen dira.

Bozketa multzoka eginen da, departamentuz departamentu, eta talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aurkezturiko zuzenketa edo boto partikular guztiak batera bozkatuko dira, salbu eta horietakoren bat bereizita bozkatzeko eskatzen bada. Zuzenketen edo boto partikularren xede izan ez direnak batera eztabaidatu eta bozkatuko dira.

17. Baldin eta zuzenketak onestearen edo artikulua edo diru-sarreraren nahiz gastuen kontzeptuak bozkatzearen ondorioz suertatu diren artikuluen multzoa edo kontzeptu horiek kontraesanekoak edo osatugabeak gertatzen badira aurrekontuak partidaka sailkatzen dituen liburukiarekin alderatuta, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak eta, kasua bada, Legebiltzarreko Mahaiak, behar diren aldaketak sartzen

ahalko dituzte, gertatu ahal izan litezkeen kontraesanak zuzentzeko.

18. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakolari jarraituko zaio.

19. Arau hauek aldatu ahalko dira Legebiltzarreko Mahaiak Eledunen Batzarrarekin adosturiko erabakiaren bidez.

**Bigarrena.** Arau hauek talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiari eta Nafarroako Gobernuari igortzea, eta Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **I ERANSKINA** **Aurrekontuei zuzenketak prestatu** **eta aurkezteko jarraibideak**

Osoko zuzenketak eta artikuluei nahiz partidei aurkezturikoak

1. 2020ko urtarrilaren 15ean, Parlamentuko sareko "P:\\" unitatean, "2020Presupuestos" izeneko karpetan, ipiniko dira "CrearEnmiendas" izeneko Word-eko plantilla bat, aurkeztu beharreko osoko eta artikuluen zuzenketak prestatzeko, eta Access aplikazio bat, "2020ProyectoPresupuestos.ACCDB" izeneko, zeinaren bitartez prestatuko baitira 2020rako aurrekontuen proiektuaren partidei aurkeztu beharreko zuzenketak. Horrez gain, karpeta horretan argibide-dokumentu bat utziko da, programak nola erabili behar diren azaltzen duena.

Partida berrien izenak ezin izanen dira 117 karaktere baino luzeagoak izan, hori baita SAP

tresnak ahalbidetzen duen gehienekoa, eta ezin izanen dira puntu batez bukatu.

Aplikazioarekin eta horren informazio eta funtzionamenduarekin zerikusia duen edozein zalan-tza argitzeko, Asun Marzal andrearengana jo daiteke (telefonoa: 1234).

2. Talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkar-teak eta foru parlamentarietako ziurtagiri digital baten bitartez sinatu beharko dituzte egindako zuzenketak. Epea bukatu aitzin, Parlamentuko Erregistro Telematikoan aurkeztuko dira zuzenketak. Horretarako, beharrezkoa da Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digital bat edukitzea.

*In voce zuzenketak.*

Zuzenketak aurkezteko epe arrunta bukatuta, Parlamentuko sareko "P:\\" unitateko "2020Presupuestos" karpetan Access aplikazio bat ipiniko da, "INVOCE\_2020Presupuestos.ACCDB" izeneko, partidei in voce zuzenketak egiteko, eta zuzenketaren mota hau prestatzeko baizik ez da erabiliko. Artikuluei in voce zuzenketak egiteko, "CrearEnmiendas" izeneko Word-eko plantilla erabiliko da.

Bilera parlamentarioko eztabaidan adostutako in voce zuzenketetarako, bilera-aretoan eskuragarri egonen dira horien datuekin bete beharreko paperezko ereduak.

Zuzenketei eta boto partikularrei eustea

Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkar-teak eta banakako foru parlamentarietako horretarako diseinatutako dagoen plantilla erabiliko dute, zeina eskueran izanen baitute Parlamentuko sareko "P:\\" unitateko "2020Presupuestos" izeneko karpetan. Hauxe da plantilla-dokumentuaren izena: Plantilla\_Mantenimiento de enmiendas.doc.



